

# TOKIKO AGENDA 21 DONOSTIA

**III INGURUMEN EKINTZA PLANA IDAZTEKO PROZESUA**

2015eko OTSAILA

## INGURUMEN EKINTZA PLANA 2015-2022

Enea

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua, Tokiko Agenda 21 programako ekintza planak garatzeko diru-laguntzen esparrua.

# DONOSTIAKO TOKIKO AGENDA 21 PROGRAMAKO III. INGURUMEN EKINTZA PLANAREN IDAZKETA-PROZESUA

## INGURUMEN EKINTZA PLANA 2015-2022

## DONOSTIA HIRIBERDEA INGURUMEN ESTRATEGIA 2030

**2015eko OTSAILA**


### ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA:

### DONOSTIAKO UDALA

**Axier Jaka.** Informazio, Partaidetza eta Ingurumen zinegotzi ordezkaria

**Iñaki Irurtia.** Ingurumen Zuzendaria

**Ana Juaristi.** Ingurumen-osasuneko eta Iraunkortasuneko Zerbitzuburua

### LAGUNTZA TEKNIKOA

**ENEA Estrategias para la Sostenibilidad**

**Ainhoa Gea.** Industri ingeniaria. Hausnarketa estrategikoaren koordinazioa.

**Ana López.** Nekazaritza-ingeniaria. Koordinazio teknikoa.

Energia eta Klima-aldaketa

**Susana Torregaray**. Geologian lizentziaduna.

Ingurumenaren kalitatea eta arriskua, ura, kontsumo arduratsua eta hondakinak.

**Aiala Zubieta**. Biologian lizentziaduna.

Lurraldea eta plangintza. Biodibertsitatea.

**Matíes Serracant**. Geografian lizentziaduna.

Mugikortasuna eta garraioa.


.

# PLANAREN GAKOAK

Donostiak 2004. urtean onartu zuen Agenda 21 programako bere lehenengo ekintza plana. 2004. eta 2014. urteen artean, bi etapa garatu dira, orain arte gauzatutako bi planek markatutakoak: 2004-2007 Planak eta 2008-2013 Planak, hain zuzen ere.

Donostiako Udaleko **Ingurumen Zuzendaritzak** bultzatzen duen **Donostiako Tokiko Agenda 21** programak berezkoak dituen hainbat ezaugarri dauzka; hala nola, **ingurumenaren iraunkortasunean** zentratzea edo partaidetza antolatzearena, **Ingurumeneko Aholku Batzordearen** funtzionamendua arautzen duen araudiaren bitartez, batetik, eta sektoreko **mahai teknikoen** bitartez, bestetik. Mahai horiek, plana ezartzeko erritmo ona eta ezaugarri horietako tokiko politika baterako koordinazio egokia bermatzen dituzte.

Lehendabiziko plana onartu zenetik hamar urte igaro diren honetan, Tokiko Agenda 21 **prozesua** ondo **finkatuta** dago Udalean; hain zuzen ere, 2008-2013 Plana % 73an egikarituta amaitu zen. Zifra hori, Euskadiko Tokiko Agenda 21 programen testuinguruan, ezaugarri horietako planetarako esperotako balioaren eta batez bestekoaren oso gainetik dagoen egikaritze-maila da.

Euskadiko Agenda 21 programak planifikatzeko, ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko eredua **Udalsarea 21** Sareak bultzatzen du eta **Gipuzkoako Foru Aldundiak** babesten du, ebaluazioak egiteko urteko zerbitzuen bitartez; eredu horrek ere lagundu du Donostiako Agenda 21 programa politika bizia eta etengabe hobetzen ari dena izan dadin, urtero ebaluatzen delarik, programaren ezarpena ziurtatzeko helburuz.

2014. urtean zehar, **2015-2022** aldia hartuko duen **hirugarren ekintza plana prestatzeko** prozesua abiarazi du Donostiako Udalak. Aurretiazko testuinguru guzti horri esker, ondorengo **erronkei** helduko zaie **aldi berri honetan**:

- **Tokiko Agenda 21a udal politiken artean sendotzea eta kokatzea.**
- **Tokiko Agenda 21aren plangintza ekonomikoa sendotzea. udal konpromisoa errazteko eta beraren bideragarritasuna ziurtatzeko.**
- **Tokiko Agenda 21ean sektorekako planak txertatzea eta lerrokatzea, hala nola Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (EIEP) edo zarata kutsaduraren plana, beraien kudeaketa are eta gehiago hobetzeko.**
- **Tokiko Agenda 21aren inguruko komunikazioa sendotzea eta herritarrengana gehiago hurbiltzea, udalerriko ingurumen iraunkorrarekiko duen ardura partekatua errazteko.**
- **Udalerriko ingurumen iraunkorrari ikuspegi desberdina txertatzea eta indar gehiago ematea, osasunaren kasuan bezala.**

# PLANA NOLA PRESTATU DEN

Ikuspegi teknikoa kontutan hartuz, Tokiko Agenda 21ak barneratzen dituen arlo desberdinen egoeraren analisia izan da hirugarren ingurumen ekintza planaren abiapuntuetako bat, berau **Ingurumen Diagnostikoa 2014** deritzon dokumentuan jaso delarik. Diagnostikoan aztertutako arlo bakoitzaren kasuan 2015-2022 epealdirako jarduketa esparru nagusiak azaltzen dira.

Bestalde, prozesuan zehar 2030 urteari begirako hausnarketa estrategikoa burutu da baita ere, aipatutako Ingurumen Diagnostikoko emaitza nagusietan eta ingurumen arloko joeren analisian oinarrituz. Guztia **Donostiako Ingurumen estrategia 2030 [DSSHiri Berdea_2030] dokumentuan jaso da.**

# PLANAREN OSAKETAN PARTE HARTU DUTENAK

2014an zehar Ekintza Planaren osaketaren inguruan lan egiteko bildu dira. Prozesuan zehar gaikako **mahai teknikoetako** partaideek parte hartu duten eta adostasunera iritsi diren bi momentu erabakigarri egon dira.

Burutu diren mahai teknikoen datak eta parte hartzaileak ondorengoak dira konkretuki:

| Mahai teknikoa | Datak | Nortzuk parte hartu duten |
|---|---|---|
| **Ura** | 2014/06/16<br>2014/11/21 | FERNANDO PEREZ (URAK-UDALA), IBAN ZUBELDIA (AGASA), TXEMA HERNANDEZ (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), FELIX IZKO ETA ELENA SANZ (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA), ASUN YARZABAL ETA ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Biodibertsitatea** | 2014/06/12<br>2014/11/13 | ESPERANZA MARTINEZ (PARKEAK ETA LORATEGIAK-UDALA), JON ZULAIKA (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA), UXUA ARANA (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), ASUN YARZABAL ETA ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Kontsumo arduratsua** | 2014/06/06<br>2014/11/11 | MANU MENDEZ ETA MAIDER SEGREDO (EMAUS), ANA BERGUA (EROSKETAK-UDALA), ANA CRISTINA RODRIGUEZ (KONTSUMO BIDE-EUSKO JAURLARITZA), BELEN MARTINEZ (LEHENDAKARITZA-UDALA), MAITE AYESTARAN ETA ARANTZA AMAT (DONOSTIAKO SUSTAPENA-NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN GUZTIONA KLUSTERRA), OIHANA ORKOLAGA ETA UXUA ARANA (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), ALAITZ IRAOLA ETA ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Mugikortasuna** | 2014/06/10<br>2014/11/19 | IGOR GONZÁLEZ (DBUS), JULIAN MEZACASA (KALAPIE), JOSU BENAITO ETA MARÍA AZURMENDI (MUGIKORTASUNA-UDALA), MANU GONZÁLEZ (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Hondakinak** | 2014/06/17<br>2014/11/12 | AITOR BASURTO ETA CARLOS SÁNCHEZ (HIRIKO ZERBITZUAK-UDALA), ISIDRO SALABERRIA (SAN MARKO MANKOMUNITATEA); IÑIGO GALIANA (FCC), MANU GONZALEZ (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Energia** | 2014/11/21 | IÑAKI GARCIA (EVE), TXEMA LARRAGUETA (ARGIZTAPENA-UDALA), IKER MARTÍNEZ (DONOSTIAKO SUSTAPENA), RAFA IRASTORZA (UIN), IMANOL ITURRIA (PROIEKTUAK ETA OBRAK-UDALA), TXEMA HERNANDEZ (CRISTINA ENEA FUNDAZIOA), JON GASTAÑARES, MIKEL LASA ETA ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |
| **Osasuna** | 2014/06/09 | ANA TXURRUKA (BERDINTASUNA-AYUNTAMIENTO), SORKUNDE JACA (ESKOLA OSASUNA), ALMUDENA ESTEBERENA (GIZARTE ONGIZATEA-UDALA), MARIA AZURMENDI (MUGIKORTASUNA-UDALA),IÑAKI ZABALETA (KIROL PATRONATUA), |

| Mahai teknikoa | Datak | Nortzuk parte hartu duten |
|---|---|---|
| | | JOSE JUAN IJURKO (HEZKUNTZA-UDALA), NAIARA GARATE (BERDINTASUNA-UDALA), ARANTZA AMAT (DONOSTIAKO SUSTAPENA), MIREN MANCISIDOR (GAZTERIA-UDALA), MARIA FERNANDEZ (AIETE TOPAGUNA PLUS 55), VIRGINIA CABALLERO, EDUARDO GUERRERO, AITOR CASTEJON ETA ANA JUARISTI (INGURUMENA-UDALA) |

Mahai teknikoen batzarrak burututa, Plana **Ingurumenaren Aholku Kontseiluan** egiaztatu da, 2014ko abenduaren 10eko eta 2015eko otsailaren 2ko saioetan konkretuki.

# 2014ko INGURUMEN DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Ingurumen Diagnosia, ingurumen arloko joeren analisia eta burutu den hausnarketa estrategikoa abiapuntutzat hartuta, ondorioak lau arlotan egituratu dira, berauek Donostia hiriak 2030rako dituen ingurumen erronkekin bat datozelarik. Emaitza nagusiak ondorengoak dira:

## HONDAKINAK

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| **Joko Garbia** estrategia abian jartzea; estrategia horrek epe laburrera ikusiko den emaitzaren aldeko apustua egiten du, Zero Zabor kontzeptuan eta **erantzunkidetasuna**, **gardentasuna eta kudeaketa arduratsua** bezalako elementuetan oinarrituta.<br><br>• Bio-hondakinaren prebentziorako sistemak abian jartzea, etxe-konpostaren eta auzo-konpostaren bitartez.<br><br>• Hiri osoan bio-hondakinen gaikako bilketa orokortzea.<br><br>• Bilketa-sistema auzoen berariazko beharretara egokitzeko malgutasuna; esaterako, Alde Zaharrean, auzo horretako hondakinen plan berriaren bitartez.<br><br>• Helburu zehatz baten aldeko apustua (Let's 60%, 2016rako).<br><br>**Kontsumo arduratsuko** ekimenekiko Udalaren sentsibilitatea eta arlo horretan egindako ibilbidea.<br><br>Kontsumo arduratsuaren alde lanean diharduen era askotako eragile kopurua.<br><br>Udaleko hainbat departamentuk **erosketa eta kontratazio publiko arduratsuaren** arloan egindako ibilbidea. | Hondakin-sorkuntzaren **prebentzioa**, sortzen den hondakin kopurua murrizteko bidetzat kontsumo arduratsua bezalako esparruei helduz eta elikagaien xahutzearen gaiari helduz.<br><br>**Prebentzioko helburu** bat finkatzea.<br><br>**Birziklatze-tasa** hobetzea, **bio-hondakinaren** frakzioari arreta berezia eskainiz, gainerakoak ere ahaztu gabe. |

# ENERGIA ETA Y KLIMA-ALDAKETA

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta hiria klima-aldaketaren ondorioei egokitzeko **plangintza aitzindaria**.<br><br>*Donostia –$CO_2$: familiak klimaren alde* bezalako **erantzunkidetasuneko** ekimenak.<br><br>Hiriko ekitaldietan **Karbono-aztarnaren** kontzeptua sartzea.<br><br>Udalak **energia eraginkortasunaren** arloan egindako lana. | **Klima-aldaketara egokitzeko** hiriarentzako estrategia bat lantzea.<br><br>Energia kontsumoaren eta energia berriztagarrien kontsumoaren **emaitzak**.<br><br>**Ekitaldietan Karbono aztarna** murrizteko estrategiak aplikatzea.<br><br>Herritarrak **sentsibilizatzeari** garrantzi berezia ematea.<br><br>**Energia-pobreziaren** arazoaren aurrean, erakundeen konpromisoa eta esku-hartzea. |

# BIODIBERTSITATEA

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Ondo aitortuta dagoen hiriaren **paisaia-balioa**.<br><br>**Habitatak berreskuratzeko** Udalaren konpromisoa.<br><br>Hiriko **gizarte-sareak** ibilbide luzea du biodibertsitatearen arloan.<br><br>Egindako azterketen bidez jasotako natura-balioen **ezagutza**. | Hiriko biodibertsitate inguruei **balioa ematea**, eremu txikiak barne.<br><br>Aniztasun ekologikoa **ezagutaraztea**.<br><br>Biodibertsitatearen **babesari eta kontserbazioari** heltzeko Udalaren jarduketa planifikatzea.<br><br>Beste departamentu batzuekiko **koordinazioa hobetzea**, batez ere, hirigintza eta parke eta lorategien departamentuekikoa. |

# INGURUMEN-OSASUNA

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| **Mugikortasun iraunkorraren** aldeko apustua.<br><br>Berriki egin diren **zarata-kutsaduraren eta kutsadura elektromagnetikoaren** mapei esker, gaur egungo datu objektiboak ditugu eta horien arabera joka dezakegu.<br><br>**Airearen kalitatea progresiboki hobetzen** joan da azkeneko urteotan.<br><br>**Elikadura iraunkorrarekin** lotutako ekimenak daude.<br><br>**Ur-eskaera progresiboki murriztu** egin da azkeneko urteotan.<br><br>**Osasuna sustatzeko** mapa egin da. | **Osasuna** ingurumenaren kalitatearekin lotutako beste esparru batzuetarako (airearen kalitatea, zarata edo mugikortasuna) abiapuntutzat hartzea.<br><br>**Kutsadura elektromagnetikoaren** gaiari heltzeko Udalaren jardunbidea planifikatzea.<br><br>**Osasun publikoaren** arloko ekimenak koordinatzea.<br><br>**Elikadura-subiranotasunaren** estrategia bati heltzea.<br><br>**Ur-horniduraren** kalitatea eta kantitatea bermatzen jarraitzeko bitartekoak ziurtatzea (behe ubidea eta tarifa-sistema). |

# 2015-2022 EPEALDIRAKO TOKIKO AGENDA 21eko III INGURUMEN EKINTZA PLANAREN ETA DONOSTIA HIRI BERDEA INGURUMEN ESTRATEGIAREN ARTEKO LOTURA

Tokiko Agenda 21eko III Ekintza Planak eta 2030erako hiriko Ingurumen Estrategiak beraien arteko lotura estua dute eta elkar eragiten dute.

Estrategiak Ingurumen Diagnostikoan identifikatutako ondorioetan izan du bere sorburua eta aldi berean, Planaren ildo estrategikoak eta ekintzak Estrategiaren arabera eta bertan jaso diren helburuei erantzuteko egituratu dira, 2015-2022 epealdia jasotzen dituen Estrategiaren lehen zikloari dagokionez.

Ingurumen Estrategiak 2030 urteari begira hirian garatzeko lau ingurumen erronka nagusi proposatzen ditu:




Bestalde, ekintza Plana 7 ildo estrategikoetan egituratzen da, erronka hauetan modu zuzenean edo zeharka eragiten dutelarik, jarraian azaltzen den moduan:

:




# TOKIKO AGENDA 21eko III INGURUEMN EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Plan honek urtero egiten den segimenduari jarraipena emango dio, Donostiako Tokiko Agenda 21aren ibilbidearekin, **Udalsarea 21** Sareak [Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea] sustatutako ebaluazio eta jarraipenerako ereduarekin eta **Gipuzkoako Foru Aldundiak** Tokiko Agenda 21aren ebaluazioa egiteko urteroko eskaintzen duen zerbitzuarekin bat eginez. Horretarako ondorengo zedarri eta tresnetan oinarrituko da:

<table>
<tr><th colspan="3">TOKIKO AGENDA 21eko INGURUMEN EKINTZA PLANA 2015-2022</th><th rowspan="2">Tokiko Agenda 21ean txertatutako Planen jarraipena</th></tr>
<tr><th>Tresna</th><th>Maiztasuna</th><th>Nork parte hartzen duen</th></tr>
<tr><td>Planaren ezarpen mailaren urteroko ebaluazioa<br><br>Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen ebaluazio zerbitzuaren bidez</td><td>Urtero</td><td>Tokiko Agenda 21eko arduraduna<br><br>Mahai teknikoetako kideak<br><br>Ekintza Planaren exekuzioan inplikatutako udal langileak<br><br>Nori eta nola ematen zaio informazioa:<br><br>Ingurumenaren Aholku Kontseilua<br><br>Emaitzak udal web gunean argitaratu</td><td>Urterako ebaluazioa sistematikoa:<br><br>• Zarata Kutsaduraren Plana<br>• Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (EIEP-PAES)<br><br>Nori eta nola ematen zaio informazioa:<br><br>[EIEP-PAES]: Europar Batasunari, EEE-EVE-ren bitartez, bi urtetik behin.</td></tr>
<tr><td>Tokiko Iraunkortasun Adierazleen kalkulua:<br><br>• Udalsarea 21eko partaide diren udalerrietarako komunak diren tokiko iraunkortasun adierazleak<br><br>Udalsarea 21ek eskaintzen duen EAEko udalerrietan TA21en ebaluazio eta jarraipen programaren bidez<br><br>• Tokiko iraunkortasun adierazleak [Tokiko Iraunkortasun Txostena]</td><td>Urtero<br><br>Urtero</td><td>Tokiko Agenda 21eko arduraduna<br><br>Cristina Enea Fundazioa<br><br>Nori eta nola ematen zaio informazioa:<br><br>Ingurumenaren Aholku Kontseilua<br><br>Tokiko Iraunkortasun Txostenaren argitalpena</td><td></td></tr>
<tr><td>Berotegi Efektua eragiten duten Gasen Inbentarioa (Udaletxea + udalerria)<br><br>Udalsarea 21ek eskaintzen duen EAEko udalerrietan TA21en ebaluazio eta jarraipen programaren bidez</td><td>Urtero</td><td>Tokiko Agenda 21eko arduraduna</td><td>2020rako EIEP-PAES.ak zehazten dituen helburuen betetze-mailaren jarraipena<br><br>Nori eta nola ematen zaio informazioa:<br><br>[EIEP-PAES]: Europar Batasunari, EEE-EVE-ren bitartez, lau urtetik behin.</td></tr>
<tr><td>Donostiako Ingurumen Estrategia 2030-eko Xedeen jarraipena 2030</td><td>Urtero</td><td>Tokiko Agenda 21eko arduraduna<br><br>Nori eta nola ematen zaio informazioa:<br><br>Ingurumenaren Aholku Kontseilua<br><br>Gobernu Taldea</td><td></td></tr>
</table>

| TOKIKO AGENDA 21eko INGURUMEN EKINTZA PLANA 2015-2022 | | | Tokiko Agenda 21ean txertatutako Planen jarraipena |
|---|---|---|---|
| Tresna | Maiztasuna | Nork parte hartzen duen | |
| | | Herritarrak | |

# TOKIKO AGENDA 21eko III INGURUMEN EKINTZA PLANA [2015-2022]

Jarraian aurkezte den planak aurretiaz onartuak izan ziren bi plan barneratzen ditu, bi plan hauek Tokiko Agenda 21aren helburuekin zuzenki lotuak daudelarik:

- Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana [EIEP]
- Zarata Kutsaduraren Plana

Plana **7 ildo estrategikoetan** egituratzen da eta 2015-2022 epealdian burutzeko **191 ekintza** jasotzen ditu.

Donostiako Agenda 21aren helburu estrategikoak zehaztez dituzten ildo estrategikoak ondorengoak dira:

1. **KONTSUMO ARDURATSUAREKIN KONPROMETITUTAKO HIRI EREDU BATERUNTZ AURRERA EGITEA**
2. **HONDAKINEN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA KUDEDAKETA HOBETZEA, HERRITARREN ERANTZUNKIDETASUNA SUSTATUZ**
3. **INGURU OSASUNTSU BAT BERMATZEA ETA HIRITARREN ARTEAN OSASUNA SUSTATZEA**
4. **UR ZIKLOAREN KUDEAKETAREN HOBEKUNTZAN AURRERAPAUSUAK EMATEA ETA ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATZEA**
5. **BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK MURRIZTEA, MUGIKORTASUN IRAUNKIORRA BULTZATZEN DUEN HIRI BATEN ALDEKO APUSTUA EGINEZ**
6. **ENERGIA ERAGINKORTASUNEAN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BULKADAN TOKIKO EKINTZA INDARTZEA ETA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO JARDUNEAN AURRERA EGITEA**
7. **UDALERRIKO BIODIBERTSITATEA ETA HONEK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK BABESTEA, KONTSERBATZEA ETA ELKARBANATZEA**

Plana hiru mailatan egituratzen da:

- Ildo estrategikoak
- Jarduketa programak
- Ekintzak

“Ekintza” atalean ekintza bakoitza ondoren zehazten diren ezaugarrien arabera karakterizatzen da:

- **Ekintzaren deskribapena**: ekintzaren helburu konkretua definitzen da, nori zuzendua dagoen eta helburua lortzeko aurreikusten diren tresnak.
- **Arduraduna(k)**: ekintzaren gauzatzean edo ezarpenean parte hartzen duen/ duten persona/k identifikatzen ditu.
- **Epea**: ekintza martxan jarri beharko litzatekeen epea azaltzen du (laburra: 2015-2016, ertaina: 2017-2018 eta luzea: 2019-2022).
- **Lehentasuna**: atal honen bidez ekintza bakoitzaren lehentasuna definitzen da, honetarako ekintza bakoitzak iraunkortasunean duen eragina eta ekarpena kontutan hartuz (Altua, Ertaina, Baxua).

Bestalde, zenbait eremuk ekintza bakoitzari ingurumenaren iraunkortasunarekin lotura duten gaiak esleitzeko aukera ematen dute, baita ekintzek Aalborg-eko Konpromisoei nolako ekarpena egiten dieten lotzea ere.

# 1go ILDO ESTRATEGIKOA

## KONTSUMO ARDURATSUAREKIN KONPROMETITUTAKO HIRI EREDU BATERUNTZ AURRERA EGITEA



| 1.1.1 | Gizarte klausulen komisioaren bidez udalaren erosketa eta kontratazio arduratsuen prozesuan sailarteko koordinazioa sustatzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Ekintza honen helburua, Erosketa eta Kontratazio prozesua udalerriko administrazio publiko osora (udal sailetara, sozietate publikoetara eta erakunde autonomoetara) zabaltzea da eta prozesua udaleko gainontzeko erakundeetan modu koordinatu eta homogeneizatu batean ematea. ekintza honetan, Erosketa eta Kontratazioa bere zentzu zabalean ulertzen da eta beregain hartzen ditu ez bakarrik pleguetan irizpide arduratsuak barneratzea baizik eta baita eragileen formazio, hornitzaileekin kontaktua, etab.<br><br>Helburu hau lortzeko beharrezkoa izango da udaleko erakunde guztien erosketa eta kontratazioan inplikaturik dauden eragile nagusiak identifikatzea eta gutxienez, urtean behin bilera bat egitea, non erosketa eta kontratazioa hedatzeko beharrezkoak diren jarduerak erabakiko diren, baita aurrera eramaten diren jardueren jarraipen eta balorazioa ere. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Lehendakaritza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.1.2 | Erosketa eta kontratazio arduratsuan pertsonak formatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Beharrezkoa da erosketa eta kontratazio iraunkorrean inplikaturik dauden eragileen formazioa, horrela indarrean dauden iraunkortasun irizpideak egiten diren erosketa eta kontratazioetan barneratuak egon daitezen eta era berean erosketa eta kontratazioak ingurugiroarekiko duen inpaktuaren gaineko emaitzak hobetzeko. Horretarako, formazio hori behar duten eragileen identifikazioa egingo da, baita pertsona horien formazio beharren identifikazioa ere eta formazio hori jasotzeko barne eta kanpo baliabideak bilatuko dira.<br><br>Formazio beharra identifikatu diren zenbait gai:kaudimen teknikoen irizpideen eta exekuzio irizpideen artean desberdintzea, konkurrentzia askea bermatzen duten irizpideak barneratzea, etab. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Lehendakaritza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| **1.1.3** | **Iraunkortasun irizpideak dituzten erosketa eta zerbitzuen aukera handizea** |
|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea |

**Deskribapena:**

Orain arte iraunkortasun irizpideak erosketa eta kontratazioen pleguetan barneratuak izan dira. ekintza honen bidez, erosketa eta kontratazio irizpideak zabaltzea nahi da, bai motan (lanak, argiteria, ehunak, garbiketa, elikadura, etab.) baita kopuruan ere (edozein modalitate delarik: kontratu txikiak, negoziatua, etab. eta tokiko administrazio guztian). Horretarako eta urtero biluz irizpide hauetara barneratu beharreko erosketa eta kontratazioak identifikatuko dira. Irizpide arduratsuak barneraturik dituzten erosketa eta kontratazioetan, eta emaitza hobeak lortzeko helburuarekin, komenigarria litzateke eskatzen diren irizpide arduratsu horien exijentzia maila handitzea, posible den neurrian.

Prozesu hau erraztuko duten tresnak garatu ahalko dira, hala nola, aplikazio gidak egitea edota antzekoak.

Lehentasuna emango zaie eragin handia duten erosketa eta kontratazioetan (gizarte edo ingurugiroa) irizpide arduratsuak barneratzea.

Hiri hondakinen bilketa eta gestioaren lehiaketaren prestaketa iristen den momentuan, lizitazioa zati desberdinetan aurkezteko aukera baloratu, era honetan mota desberdinetako enpresen partehartzea ahaleginduko baita, (Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa bezalako taldeak) honez gain, mota honetako lehiaketetan, babesturiko tailerrei eta helburu nagusi bezala ezindutako pertsonen edota desfaborazita daudenen integrazio sozial eta profesionala helburutzat duten operadore ekonomikoei, lehiaketetan parte hartze eskubidea bermatzeko aukera kontuan hartzea baloratzen da.

Udalak antolatutako lunch eta ekitaldietan irizpide arduratsuei lehentasuna emango zaie, batez ere Donostia 2016 Kultur Hiriburuaren antolakuntzan.

Lehentasuna emango zaio irizpide arduratsuak barneratzea proiektu eta lanetan, izan ere hauek baitira estatuko eta autonomia erkidegoko prebentzio planetan lehentasuneko hondakin fluxu gehien sortzen duten jarduerak:

* Hondakinen sortze tasaren administrazio publikoek sustatzen dituzten proiektu eta lanetan barneratzea, horrela hondakinen prebentzioa eta ondorengo egiaztapena, kontrataziorako balorazio irizpide bezala kontuan hartua izan dadin (Estatuko Hondakinak Prebenitzeko Planeko neurria)

* Eraispena jatorritzat duten materialen erabilera sustatzea beren berezko erabileretarako ekoizle eta sustatzaileen partetik (Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planeko zirriborroko neurria)

* Arautegian , Orden Técnica de usos de Áridos reciclados del Gobierno Vascoreik bat datozen birziklatutako ARIDOEN kontusmoaren % derrigorrezkoa izatea barneratzea. (Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planeko zirriborroko neurria)

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Lehendakaritza | **Beste Arduradunak** | Udala- Kontratazio eta Erosketak |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.1.4 | **Enpresa hornitzaileak, udala aurrera eramaten ari den erosketa eta kontratazio arduratsuaren inguruko prozesuaz informatzea** |
|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea |

**Deskribapena:**

Ekintza honen helburua, udalak erosketa eta kontratazio arduratsuaren gaineko konpromisoa hornitzaileei (edo beste edozein eragile interesaturi) ezagutaraztea da, horrela, udalaren eskariei aurre egin ahal izateko eta berauetara egokitzeko.

Horretarako hornitzaileei zuzendutako informazio jarduerak egitea espero da:

* Web guneko ”kontratatzailearen profila” atalean udalaren erosketa eta kontratazio arduratsuaren politika azaltzen duen atal bat barneratzea. Honez gain, eskatzen diren irizpide arduratsuei buruzko informazio orokorra naiz zehatza ere ager daiteke baita erosketa mota baita burututako kontratazioak ere. Galderarik izatekotan, kontaktuko pertsonari buruzko informazioa ere errazten da. Beren hornitzaileekin erosketa arduratsua gestionatzen dabiltzan beste udal batzuen adibideak:

http://www.toulouse.fr/web/entreprises-partenaires/achats-et-relations-fournisseurs

http://www.ville-geneve.ch/themes/developpement-durable-energie/geneve-ville-durable/achats-responsables/

http://www.islington.gov.uk/services/parks-environment/sustainability/sus_buying/Pages/buy_green_partners_suppliers.aspx

http://www.edmonton.ca/business_economy/selling_to_the_city/sustainable-purchasing-policy.aspx

* Interesa duten eragileekin ere (sindikatuak, Adegi, Gipuzkoako Bazkundea) bilerak antolatuko dira udalak eska ditzakeen irizpide arduratsuen inguruan informazioa emateko eta informazioa bidaliko zaie norbere egoitzetara.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 1.500-4.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Lehendakaritza | **Beste Arduradunak** | Udala- Ingurumena |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| | |
|---|---|
| **1.1.5** | **Gizarte klausulen komisioaren bitartez, udalak erosketa eta kontratazio arduratsuan egindako aurrerapenak ebaluatzeko aukera ematen duten sistema monitorizatua garatzea.** |
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea |

**Deskribapena:**

Ekintza honen helburua, irizpide arduratsuak barneratzen dituzten erosketa eta kontratazioen jarraipena egin ahal izateko tresna bat izatea. Egun dagoen erosketa eta kontratazioen datu baseari, irizpide arduratsuak dituztenei jarraipena egin ahal izatea ahalbidetzen duen aldaketa barneratzea.

* Kudeaketa adierazleak ezar daitezke, hala nola: % euroak erosketa eta kontratazio arduratsua, % euroak erosketa eta kontratazioak guztira edo/eta iraunkortasun irizpideak dituzten erosketa eta kontratazioak/guztirako erosketa eta kontratazioak.

Hornitzaileek irizpide arduratsuak betetzen dituztenaren jarraipena egitea kontuan hartzekoa da. Beharrezkoa litzateke, jasotako informazioa berrikustea eta irizpideak betetzen direla bermatzeko mekanismoak ezartzea.

* Exekuzio adierazleak: irizpideak behar bezala bete dituzten hornitzaileen %, irizpide arduratsuak dituzten pleguetara aurkeztutako hornitzaileen %

Azkenik, beharrezkoa litzateke erosketa eta kontratazioetan irizpide arduratsuak barneratzeak dituen inpaktu sozial eta ingurumenaren gainekoak baloratzea. Bestalde, adierazle hauek zailak dira ezartzeko eta kalkulatzeko, izan ere, egindako erosketa eta kontratazioen menpe egongo baita.

* Erosketa edo kontratazio bat aztertzea proposatzen da eta eraginaren adierazleak kalkulatzea proposatzen da pilotai moduan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Lehendakaritza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.1.6 | **Kontsumo arduratsuaren inguruan udaleko langileei zuzenduriko informazio eta sentsibilizazio jarduerak egitea.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Kontsumo arduratsuaren inguruan udaleko langileak sentsibilizatzeko modu eta mekanismoak erronka bezala aurkezten dira. Korreo elektroniko bidez bidalitako sentsibilizazio mezuak ez dira eraginkorrak, nahiz eta erantzun positiboa egon zen duela nahiko denbora ospatu ziren formazio espezifikorako jardunaldiei.<br><br>Bi urterik behin, jardunaldi hauek errepikatzea proposatzen da. Jardunaldi teknikoak izango dira udaleko langileei (politikari, tekniko eta administrariei) zuzenduak. Ingurugiroaren alor bati zuzenduriko jardunaldiak izan daitezke, horrela bai esfortzuak eta baita baliabideak zehazten direlarik. Esaterako, mugikortasuna (udal langileen mugikortasunaren inguruko informazioa, mugikortasun iraunkorraren aukerak sustatzea, irizpide berdeak erabiliz erositako autoen inguruko informazioa, etab.) | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.1.7 | **Ingurumen klausulen gida zuri bat egitea eta udalak alor honetan egiten dituen ekintzaen difusioa** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.1 Udalean erosketa eta kontratazio arduratsu bat duen eredu batera gerturatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| IHOBEren erosketa eta kontratazio berdearen gidetan eta hainbat kontratazio eta erosketetan udalak duen esperientzian oinarriturik, iraunkortasun irizpideetan oinarritutako erosketa eta kontratazioa interesgarri iruditzen zaien administrazio edota jarduerei zuzenduriko gida zuria diseinatuko da informazioa eskuragarri izan dadin. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.2.1 | Hiritarrentzako modu eskuragarri batean bertako produktu ekologiko/osasuntsuen eskaintza eta komertzializazioa sustatzea. |
|---|---|
| **Programa** | 1.2 Elikadura iraunkorra eta elikadura subiranotasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

* Tokiko elikagai ekologiko/osasuntsuak integratzea, batez ere udalak antolaturiko ekitaldi ofizialetan, lunchetan, … eta udalak kudeatzen dituen zerbitzuetan (aterpetxeak, kiroldegiak, …) baita zentro publikoetako (kultur etxeak, kiroldegiak, etab.) vending-etan ere.

* Merkataritza sektorearekin eta ostalariekin batera lan egitea tokiko produktuak eta produktu ekologikoak barneratzeko, garaiko produktuak sustatuz.

* Donostia Sustapena, Behemendi-renkin ari da lanean gertuko azoken sustapenean eta elikagai ekologikoen eta gertuko elikagaien ekoizpen eta distribuziorako sektore arteko (ekoizle, ostalari, catering …) jarduerak bultzatzen ditu.

* Umeei zuzenduriko jarduerak proposatzen dira (sukaldaritza tailerrak esaterako) etorkizuneko kontsumitzaileak izango baitira.

* Udako azoka ekologikoa sustatu eta sendotzea eta Euskal Jaietako azokan produktu ekologikoak indartzea. Tokiko produktuen azokak bultzatzea eta Santo Tomas eta Euskal Jaien testuinguruan landa azoka sustatzea.

* Produktu ekologikoen inguruan hiritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

* Mota honetako produktuen prezioak aztertzea, hiritar guztientzako eskuragarriak diren jakiteko (modu honetan hiritar batzuentzako bakarrik eskuragarri izatea ekiditeko.)

* Tokiko marka baten sorrera bultzatzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | Udala- Ingurumena |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 1.2.2 | Nekazaritza eta elikaduraren edo elikadura suburotasunaren estrategia sustatzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.2 Elikadura iraunkorra eta elikadura subiranotasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

Hiriaren elikadura subiranotasun estrategia bat egitea eta proiektu eta hiri marka sortzea

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 1.2.3 | Ikastetxeetan elikadura ekologikoa sustatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.2 Elikadura iraunkorra eta elikadura subiranotasuna sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| * Itunpeko ikastetxe eta ikastetxe pribatuetan egiten den Ekolapiko proiektuarekin jarraitzea eta zabaltzea.<br>*Ikastetxeetako catering zerbitzua eskaintzen duten hornitzaileekin lanean jarraitzea tokiko produktu ekologiko/osasuntsuak barneratzeko. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | Cristina Enea Fundazioa |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 1.2.4 | Agroaldeen sorrera sustatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 1.2 Elikadura iraunkorra eta elikadura subiranotasuna sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Laborantza ekologikoa ekonomia jarduera bezala sustatzeko agroaldeak bultzatzea. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 1.2.5 | Baratze publikoen sorreran lanean jarraitzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.2 Elikadura iraunkorra eta elikadura subiranotasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

Donostiako udala, nekazaritza desagertzen ari denaren jakitun eta beronekin batera, bai bere ondare kulturala baita ingurumen balio handiko habitat mota bat ere bere fauna eta florarekin, Lau Haizetako gunean baratze publikoak diseinatu ditu Donostiako bizilagunentzat. Proiektu honen bitartez, donostiako bizilagunei zerbitzua eman nahi zaie, lurzoruaren eta uraren nekazal erabilera ekologikoa sustatuz, bertako espezien kontserbazioan lagunduz eta ingurumen kontzientziazio eta formazioa bultzatuz, baratze publiko ekologikoen bitartez. Honez gain, jakina da ikastetxeak beren baratze propioak sortzen ari direla, baina honi buruz ez dago informazio gehiagorik.

Alde batetik, baratze ekologiko gehiago sortzea da ekintza honen helburua, baina bestetik, ikastetxeetako baratzen egoera ezagutzea eta berauekin hiriko biodibertsitatea lantzea da. Hiri baratzeak sortzeko, lehenik, ekintza hau aurrera eramateko egokiak diren lurren ikerketa bat egingo da eta baratzeak planifikatuko dira, ondoren lanak egiteko. Behin baratzeak sortutakoan, Lau Haizetan jarraitu zen prozedura bera jarraituko da. Eskoletako baratzeei dagokionez, Eskolako Agenda 21aren bitartez, baratzeen egoeraren gaineko analisia egingo da eta oraindik baratzerik ez duten ikastetxeetan hauen sorrera sustatuko da. Honez gain, hiriko biodibertsitatea lantzen duen programa bat landuko da ikastetxeetan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | Cristina Enea Fundazioa |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 1.3.1 | Hiriaren kontsumo arduratsuan diharduten eragile desberdinen koordinazioa indartzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Gutxienez urtean behin kontsumo arduratsuaren mahai teknikoarekin bilerak planifikatu. Urtero beste bilera gehigarriren bat egitea baloratzen da. Mahai honetan kontsumo arduratsuaren inguruan egindako jarduerak bateratzea da helburu eta aurreikusitako jardueren programazioa egingo da beharren eta eskuragarri dauden baliabideen baitan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

| 1.3.2 | Enpresa ekoizle eta hornitzaileei, beren produktu eta zerbitzuak eskaintzerako garaian irizpide arduratsuak barneratzeko aukeraz informatzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Ekintza honen helburua (programa honen hurrengo ekintzarekin batera ulertu behar dena) hiritarrei zuzendutako irizpide arduratsuak dituzten produktu eta zerbitzuen eskaintza zabaltzea da. Horretarako, lehenik eta behin, beharrezkoa da jarduera ekonomiko desberdinek produktu eta zerbitzu arduratsuak zer diren ezagutzea eta zein diren produktu eta zerbitzu hauei irizpide arduratsuak barneratzeko bideak (gizarte erantzukizuna, ekoetiketak, ekodiseinua, ingurumen gestiorako sistemak, etab.) eta irizpide hauekin zein onura izan ditzaketen beren eskaintzak hobetzeko.

Ekonomi jardueren sektorea sos zabala da eta beraz inbertsioak egiteko sektoreei lehentasun desberdinak eman beharko litzaieke. Planaren epe honetarako hiru sektorekin lan egitea proposatzen da: nekazaritzako elikagaiena, sektore turistikoa (ostatuak) eta ostalaritza.

Helburu hau betetzeko, clusterren, enpresa elkarteen, edota beste bide batzuen bidez saio desberdinak proposatzen dira informazioa zabaltzeko.

* Donostia Sustapenak, Ostalarien Elkartearekin lankidetza hitzarmen bat du eta horren barruan gai hauek lantzeko aukera legoke.

* Donostia 2016 Kultur hiriburua dela medio, turismo eskaintza ambientalizatzea proposatzen da.

Ekintza hau aurrera eramaterako garaian, kontuan izan behar dira Saretuz-ek jadanik Donostian kontsumo arduratsurako identifikatuta dituen hainbat irizpide, bai gizarte baita ekonomia arloetan ere (dendak, elkarteak, banatzaileak).

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | Udala- Donostia Sustapena |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| 1.3.3 | **Produktu eta zerbitzu arduatsuekin, ekoizle, denda, etab. ikusgaitasuna ematea** |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Kontsumo arduratsuarenik identifikatutako oztopo nagusia, produktu edota zerbitzu arduratsu hauek eskaintzen dituzten jardueren ikusgaitasun falta da. Modu desberdinak aurreikusten dira ikusgaitasuna hobetzeko:

* Ikusgaitasuna sustatzeko espazioak bultzatzea (azokak…) Zentzu honetan, Donostia Sustapenak "Punto Denda" Bulego Komertziala kudeatzen du, non urtean behin edo bitan mota honetako produktuak eskaintzen dituzten dendak sustatzeko erakusketak antolatzen diren.

* Produktu eta zerbitzu arduratsuei publizitatea emateko antolatzen diren ekitaldi publikoak.

Ekintza hau aurrera eramateko garaian, kontuan izan behar da, Saretuz, zigilu espezifiko bat garatzen ari dela kontsumo arduratsua sustatzen duten ekimen ekonomiko eta sozialak identifikatzeko.  Honi guztiari, kontsumo arduratsuaren kale-izendegi bat gehituko zaio eta on-line bidez nahiz app konkretu baten bidez egongo da eskuragarri.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | Udala- Donostia Sustapena |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| 1.3.4 | **Kontsumo arduratsua bultzatzen duten tokiko eragileei laguntza ematea, baita produktu eta zerbitzu arduratsuak eskaintzen dituzten ekoizle zein dendariei etab. ere.** |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Kontsumo arduratsuari dagozkion jarduerak honako neurri hauetan zehazten dira:

* Kontsumo arduratsuari zuzendutako proiektuentzako diru-laguntzak edota beste laguntza motaren bat.

* Udalak ematen dituen diru-laguntza guztietan irizpide arduratsuak barneratzea. Horretarako (2016tik aurrera) Diru-laguntzen Ordenantza berrikusi beharko da, eskaintzak aztertuko dituzten teknikariei formazioa eman irizpideak interpretatzeko irizpideak izan ditzaten eta diru-laguntzetara aurkeztuko diren pertsonak informatzea eskatzen diren irizpideei erantzuna emateko gai izan daitezen. Ingurumen irizpideei dagokionez, eta kontuan izanik oso aldakorrak direla, diru-laguntzan parte hartu nahi duten entitateak, oinarrizko irizpideen zerrenda bat izenpetzea proposatzen da.

* Prozesu hau baliagarria da edozein diru-laguntzentzat, ekitaldien antolakuntzarako, festetarako, esaterako. Enpresei eta ekintzaileei zuzendutako diru-laguntza eta laguntzetan ere irizpide arduratsuak barneratzea proposatzen da.

* Diru laguntzak edota beste laguntzaren bat ematerako garaian irizpide arduratsuak kontuan izatea, jarduera ekonomikoetarako, ekitaldien antolakuntzarako, etab. Adibidez, ekintzailetzari zuzendutako laguntzetan ingurumen irizpideak kontuan hartzea,…

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Donostia Sustapena |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| 1.3.5 | Hiriko jarduera ekonomikoen ambientalizazioa sustatzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Beste enpresa batzuei eta ez hiritarrei zuzendurik dauden jarduera ekonomiko industrial edota zerbitzuen hornitzaile direnen ingurumen/gizarte jokaera sustatzea. Udalak enpresa ekologiarekin lotutako proiektuak erraz ditzake, hala nola: zerbitzuen mutualizazio proiektuak (mugikortasuna, energia erosketa bateratua, hondakinen kudeaketa, etab.) praktika onen behatokia, etab.

Donostiako enpresa zentroetan ezarriko den proiektua (Miramon, Igara, Zuatsu…). Enpresa zentro zehatz bat aukeratuz lanean hastea espero da eta bertan enpresa ekologia proiektu bat definitzen saiatzea. Emaitza onak ematekotan, udalerriko beste enpresa zentro batzuetara zabalduko da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

| 1.3.6 | Udal espazio, jarduera, programa eta zerbitzuetan irizpide iraunkorrak barneratzea |
|---|---|
| **Programa** | 1.3 Hiriko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaitzaren garapenean parte hartzea |

**Deskribapena:**

Udalak mota desberdinetako zerbitzuak eskaintzen dizkie herritarrei (garbiketa, eta abar,...). Azpikontratatzen diren zerbitzuetan erosketa eta kontratazioen bidez txertatzen dira irizpide arduratsuak, baina badaude zenbait zerbitzu Udalak berak ematen dituenak: eraikinen mantenua, herritarren arreta, kulturalak eta abar. Ekintza honen helburua Udalak berak ematen dituen zerbitzuetan irizpide arduratsuak txertatzeko jarduerak egitea da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA |

4)Kutsaduraren inpaktuetatik babesteko ekintza posibleak. Beren edukiak banakoei, baina bereziki arrisku taldeei, daude zuzenduak eta airearen kalitatearen efektuekiko esposizioa murrizteko informazioa ematen dute. Kanpoan egiteko jarduerei buruzko informazioa eman dezakete, bereziki kongestionatutako kaleak ekiditea, hiritik zeharkako bideak planifikatzea, etab.

(informe  "La comunicación al público sobre contaminación atmosférica" Christian Oltra y Roser Sala, Marzo de 2014, ateratako informazioa).

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **3.3.3** | **Hiriko airearen kalitatean eragina duten eta industria izaerako emisio fokuekin erlazionatutako eragileekin ezagutza eta elkartrukerako espazio bat sortzea.** | | |
| **Programa** | 3.3 Osasunaren ikuspuntutik egiten diren gomendioak kontuan harturik airearen kalitatea hobetzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Hiriko airearen kalitatean eragin dezaketen industria izaerako hainbat emisio foku daude. Donostialdea eskualdean kokatzen dira. Ekintza honen helburua udalak hiriko airearen kalitatea ezagutzeko aldizkako informazioa izatea da. Horretarako tarte bat (bileretarako, web espazio, beste batzuk,..) sortzea proposatzen da horrela informazio trukea errazteko. Espazio hau definitzeaz gain, foku bakoitzaren informazioarentzako arduradun bat identifikatu beharko da eta aldi berean eskatutako informazioa eta trukearen epeak zehaztu beharko dira. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Atmosfera | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 3.4.1 | **Osasunaren babesa kontuan hartzen duten irizpideak jarraituz, telekomunikazio sareei dagozkien instalazio radioelektikoen gaineko ordenantza berri bat garatzea.** |
|---|---|
| **Programa** | 3.4 Kutsadura elektromagnetikoa murriztea |

**Deskribapena:**

Donostiako udalak telekomunikazio sareei dagozkien instalazio radioelektikoen gaineko ordenantza berri bat garatzeko asmotan lan talde bat sortu du. Talde politiko guztietako ordezkariez osatutako talde honek, zaharkituta geratu den egungo ordenantza eguneratzea da. Ordenantza berri honekin, telekomunikazio sareei dagozkien instalazio radioelektrikoen instalazio eta funtzionamenduaren inguruan Europako gomendioak barneratzea nahi da, teknologia, segurtasuna eta hirigintza baldintzak erregulatuz, beti ere osasun publikoaren prebentzio eta babesaren irizpideak zainduz.

2013ko otsailean, udaleko talde guztiek, guztien adostasunarekin Europar Parlamentuko Kontseiluaren Asanbladaren 1815 erresoluzioa onartu zuten adierazpen instituzional baten bidez. Beraz, ordenantza honek erresoluzioren gomendioak kontuan izan beharko ditu.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 3.4.2 | **Telekomunikazio sareei dagozkien instalazio radioelektikoen gaineko ordenantza berri a betetzen dela zaintzeko sistema bat sortzea.** |
|---|---|
| **Programa** | 3.4 Kutsadura elektromagnetikoa murriztea |

**Deskribapena:**

Behin Ordenantza ontzat eman eta gero, ondorengo jardueran aurreikusten dira berau martxan jartzeko:

Bere difusioa bide elektronikoak erabiliz, batez ere eta aktiboki zuzenean eragiten dien kolektibo eta entitateei.

Ordenantza honen garapenak berau betetzen dela bermatuko duten teknikarien formaziorako jarduerak barneratuko ditu.

Ordenantza baietsi ondoren, beronen disposizio berriak betetzen dinaren jarraipen eta ebaluazioa egin beharko da. Jarraipen hau gidatuko duena ordenantza garatzeko sortutako Lan Taldea izan daiteke.

Komenigarria litzateke ordenantza berak bere disposizioetan ezarpen, jarraipen eta ebaluazioaz arduratuko diren jarduerak barneratzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 1.500-4.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 3.4.3 | EEM den esposizioa dela eta umeei, nerabeei eta gainontzeko talde sensibleei zuzenduriko infomazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea | | |
|---|---|---|---|
| Programa | 3.4 Kutsadura elektromagnetikoa murriztea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Arlo guztietan informazio publiko kanpainak egitea, inplikatuta dauden erakunde sozialen partaidetzarekin, erradiazio elektromagnetikoetara esposizioak dituen arriskuei buruz informatzea eta hauek nola murriztea. Hezkuntza eta osasun alorreko eragileak haririk gabeko gailuen erradiazioen arriskuen gainean hezi, umeek eta nerabeek EEM duten esposizioa dela eta. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

ç

| 3.4.4 | Ume eta nerabeak dituzten udal zentroetan kable bidezko Inernet konexioari lehentasuna ematea. | | |
|---|---|---|---|
| Programa | 3.4 Kutsadura elektromagnetikoa murriztea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Ekintza honek ume eta nerabeak dauden udal zentroetan (haurtxokoak, gaztelekuak, kiroldegiak, musika eskolak, kultur etxeak, etab.) EEM-en esposizioa mugatzeko beharra kontuan hartzea. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 3.4.5. | Udalaren jabegopean dauden eraikinetan telefono antenarik ez instalatzea bermatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 3.4 Kutsadura elektromagnetikoa murriztea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udalaren jabegopean dauden eraikinetan telefono mugikorren antenak instalatzea debekatzen duen ordenantza barneratzea eta berau betetzen denaren jarraipena egitea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |



## 4. ILDO ESTRATEGIKOA

# UR ZIKLOAREN KUDEAKETAREN HOBEKUNTZAN AURRERAPAUSUAK EMATEA ETA ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATZEA

| 4.1.1 | Behe Kanalerako eramate alternatiboaren proiektuari ekitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Behe Kanalean arazorik egonez gero hiriko horniketaren autosufizientzian eragina izan dezake. Azpiegitura honek 54 urtetan zehar hondatze konstantea eta geroz eta handiagoa izan du eta berau konpontzea zaila da. Egoera honi konponbidea bilatzeko eramate alternatiboa egitea aurreikusten da, Behe Kanalaren apurketa kasuetan edo berau konpontzeko eta egokitzeko lanetan hornikuntza ziurtatzeko. Obra hau interes orokorreko lantzat jo zen abenduaren 23ko 26/2009 Legearen bitartez, baina oraingoz ez dago berau garatzeko dagokion aurrekonturik. Ekintza honen helburua obra edo lan hau aurrera eramateko beharrezko neurriak hartzea da. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Añarbeko Urak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.1.2 | Ur azpiegituren berrikuntzan beharrezkoak diren inbertsioak egitea, egungo zerbitzuaren maila mantendu ahal izateko | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Egungo zerbitzua mantentzea ahalbidetuko duen ur azpiegitura berritzeko beharrezkoa den urteroko gastua burutzea | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 4.1.3 | **Azpiegitura partikularretako eramateak berriztatzeko lanak sustatzeko aukerak aztertu, hornikuntza uren kalitatea hobetzeko** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Azken urtetan nabarmenki gutxitu da uraren kalitatearen inguruan jasotako kexa kopurua. Kexa gehienek etxeetara iristen den urak duen burdin edukiak eragiten zituen. Kasu askotan arazoaren jatorria etxeetako eramate pribatuetan zegoela egiaztatu ahal izan zen, eta arazoa ez zegoela udal eramateetan. Hori dela eta, uraren kalitate ona mantendu ahal izateko instalazio partikular zaharrenak berritzea beharrezkoa dela ondorioztatu da. Aukera honekin instalazioen eramate lanak diru laguntzen bidez sustatzeko aukera baloratu nahi da. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.1.4 | **Baimentzen duten erabileren kasuan, edateko txarra den ura bolumenaren erabilera gehitzea** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Gaur egun gizakien kontsumorako egokia ez den ura kale garbiketarako erabiltzen da, euri ura udal mintegia ureztatzeko eta udal igerileku batetako berriztatze ura instalazioen garbiketarako. Ekintza honen helburua edateko txarra den uraren erabilera baimentzen duten aukera gehiago dauden aztertzea da. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.1.5 | Abonatuen kontagailuak berritzeko proiektuari ekitea |
|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea |

**Deskribapena:**

Donostian kontagailuaren jabeak erabiltzaileak beraiek izateak kontagailuak berritzeko proiektuari ekitea zailtzen du. Ekintza honek hiriko 80.000 ur kontagailu inguru ordezkatzea suposatzen du, kontagailuak etxeetara joan gabe automatikoki irakurtzeko aukera ematen duten modernoago batzuengatik ordezkatuz. Aparatu berriek datuak momentuan bidaltzen dituzte, sateliteen bidez. Kontagailuak udal titulartasunekoak izatera pasatuko dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.1.6 | Ur zerbitzuaren kostuen eta diru sarrera espezifikoen azterketa eta hausnarketa egitea (hornikuntza eta saneamendua) |
|---|---|
| **Programa** | 4.1 Ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa egokia bermatzea |

**Deskribapena:**

Europako araudiak uraren erabilera eraginkorrera egokitutako pizgarriak ezartzen dituzten eta ur masen ingurumen helburuen lorpenerako prezioen politikaren beharra azaltzen du. Ekintza honen bitartez ur zerbitzuarekin erlazionatutako kostuak eta diru sarrerak aztertu nahi dira, bai hornikuntzaren ikuspegitik baita saneamenduaren ikuspegitik ere. Azterketaren helburua ez da soilik tarifen berrikuste posible bat egitea, baizik eta zerbitzuak kostuak nola berreskuratzen dituen aztertzea baita ere.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.1 | **Saneamendu azpiegiturak berritu eta hobetzeko beharrezkoak diren inbertsioak egitea, beraren gelditzea ekiditeko** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Zerbitzua bermatzea ahalbidetuko duen saneamendu azpiegitura berritzeko beharrezkoa den urteroko gastua burutzea | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.2 | **Azpiegitura partikularretako eramateak berriztatzeko lanak sustatzeko aukerak aztertu, saneamendu uren kalitatea hobetzeko** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Hondakin urak jaso eta arazteko, beharrezkoa da arlo pribatuko saneamendu sareen egoera ona mantentzea.<br>Saneamendu sareetako ihesek eragin negatibo zuzena daukate ur masetan. Aukera honen bitartez saneamendu eramateen berriztatze obren lanak diru laguntzen bidez sustatzeko aukera baloratu nahi da. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.3 | Saneamendu sareak ur masetan duen inpaktua aztertzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Azterketa honen helburua egungo saneamendu sareak ur masetan duen inpaktua ezagutzea da. Azterketa hau 7.lerro estrategikoan jasotako ekintzetan burutuko diren azterketekin koordinatuz burutuko da.<br><br>Azterketa honek ondorengo arloei helduko die gutxienez:<br><br>* Sare unitarioak banatzeko beharra edo ez.<br>* Saneamendu sarean egun dauden ubide-hartuneak ez jasotzeko aukera.<br>* Gainezkako isuriak Ingurumen Zuzentarauaren Esparru berriko eskaeretara egokitzeko aukerak. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.4 | Saneamendu saretik kanpo atera daitezkeen ubideak identifikatzea eta beharrezko lanak egitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Ekintza honek saneamendu saretik kanpo atera daitezkeen ubideak identifikatzeko azterketa egitearen beharra zehazten du, honela araztegiak ur hori araztu dezan ekiditeko. Identifikatu ondoren obra edo lan honen bideragarritasuna baloratu beharko da eta existitzen diren baliabideen arabera burutu. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.5 | Drainatze sistema iraunkorra sustatzea |
|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea |

**Deskribapena:**

Drainatze Iraunkorren Hiri Sistemen helburuak bertako azaleratik dabilen emaria gutxitzea eta isurketa urek daramatzaten kutsatzaile kopurua nabarmenki gutxitzea dira. Sistema mota honek elementu kopuru ugari barneratzen ditu: infiltrazio sistemak edo sorburuan kontrola egitea, garraio iragazkorren sistemak, tratamendu pasiboen sistemak, kudeaketa neurriak barne (garbiketak,..), legedia, sentsibilizazioa eta abar.

Beraz, ekintza hau martxan jartzeko beharrezkoa litzateke sistema hauek martxan jarri ahal izango lirateen zonaldeak identifikatzea eta zonalde hauetan eragiteko jardueren planifikazioa egitea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Proiektuak eta Obrak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.2.6 | Ur arloko politiken eskakizunetara egokitzea eta teknologia berriak eta azaleratzen diren eremuak ezagutzea |
|---|---|
| **Programa** | 4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea |

**Deskribapena:**

Ur politika berrien eta teknologia berrien inguruko formazio eta informazio saioetan parte hartzea. Egokia litzateke urteko formazio programazioa egitea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>4.2.7</td><td colspan="3">Donostialdeako udalerri desberdinen arteko koordinazioa sustatzea, saneamendu sarearen mantenu eraginkorrerako</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">4.2 Ur zikinen saneamenduaren kudeaketa egokia bermatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Udalerri desberdinetako arduradunekin urtero bilera bat egitea, tokiko arazoak komunean jarri eta arazo hauei komunean ekiteko aukera dagoen erabakitzea, helburua eraginkorragoak izatea delarik.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">Kosturik gabe</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Ura</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 4.3.1 | Herritarrei uraren zikloaren kudeaketaren arlo desberdinei buruzko informazioa ematea |
|---|---|
| **Programa** | 4.3 Uraren kudeaketarekin erlazionatutako informazioa ematea eta herritarren erantzuknkidetasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

Urarekin erlazioa duten gai askok herritarren babes zabala eta ulermena behar dutenez, geroz eta garrantzitsuagoa da kontzientzia publikoa sortzea. Ingurumen kontzientzia handitzeko garaian garrantzi handia dauka informazio publikoa eskura izateko aukerak herritarren esku uztea.

Uraren zikloari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da herritarrak baliabide berari buruz eta egiten den kudeaketari buruz informatzea eta konkretuki:

* Nondik eta nola iristen den ura hirira.

* Ura edangarri nola bihurtzen den eta beraren kalitatea ezagutzeko egiten diren kontrolak.

* Hondakin urak nola tratatzen diren eta berau nora doan.

* Herritarrak kezkatzen dituzten arloak (uretan dagoen fluorra, urak duen kloro zaporea, zergatik den marroia batzuetan,...).

* Uraren erabilera desberdinak hirian.

* Iturriko ura edo botilako ura.

* Saneamendu sareetako ur galerak.

Eta abar...

Informazioa hau formatu eta plataforma desberdinak erabiliz jar daiteke herritarren esku (web, monografikoak, eta abar...).

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 4.3.2 | **Herritarrak saneamendu sarearen erabilera egokian sentsibilizatzea, bai etxebizitza sektorean, baita bestelako sektoreetan ere: merkataritza, ostalaritza, industriala, udala** |
|---|---|
| **Programa** | 4.3 Uraren kudeaketarekin erlazionatutako informazioa ematea eta herritarren erantzuknkidetasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

Honen helburua herritarrak hondakin uren sarearen erabilera arduratsuan inplikatzea da:

* Ohiko bideen erabilera zuzena (inprimakiak, irratia, telebista) edota ohikoak ez diren bideak (uraren ordainagirian mezuak jartzea, jolasak, eta abar);

* Ekitaldi handien antolaketa eta pertsona ospetsuen babesa (honek komunikabideen atentzio handiagoa sortzen duen);

* Existitzen diren sareak erabiltzea (gizarte mugimenduak, Gobernuz Kanpoko Erakundeak, negozio elkarteak):

* Kanpainari identitatea emateko logotipoak erabiltzea ( adibidez ur tanta).

Kanpainaren irismena definitu behar da, helburu taldea, pertzepzioan nahi den aldaketa edo jarrera eta helburu taldeak kanpainaren emaitzan izango duen eragina.

Birringailuak erabiltzeko (eta komertzializatzeko) debekua barneratzea eta azpimarratzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| .3.3 | **Uraren kontsumo arduratsua egiteko sentsibilizazio kanpaina espezifikoak egitea, bai etxebizitza sektorean, baita bestelako sektoreetan ere: merkataritza, ostalaritza, industriala, udala** |
|---|---|
| **Programa** | 4.3 Uraren kudeaketarekin erlazionatutako informazioa ematea eta herritarren erantzuknkidetasuna sustatzea |

**Deskribapena:**

Honen helburua herritarrak uraren kontsumo arduratsuan inplikatzea da:

* Ohiko bideen erabilera zuzena (inprimakiak, irratia, telebista) edota ohikoak ez diren bideak (uraren ordainagirian mezuak jartzea, jolasak, eta abar);

* Ekitaldi handien antolaketa eta pertsona ospetsuen babesa (honek komunikabideen atentzio handiagoa sortzen duen);

* Existitzen diren sareak erabiltzea (gizarte mugimenduak, Gobernuz Kanpoko Erakundeak, negozio elkarteak):

* Kanpainari identitatea emateko logotipoak erabiltzea ( adibidez ur tanta).

Kanpainaren irismena definitu behar da, helburu taldea, pertzepzioan nahi den aldaketa edo jarrera eta helburu taldeak kanpainaren emaitzan izango duen eragina. *

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Cristina Enea Fundazioa |
| **Gaia** | Ura | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |



## 5. ILDO ESTRATEGIKOA

## BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK MURRIZTEA, MUGIKORTASUN IRAUNKIORRA BULTZATZEN DUEN HIRI BATEN ALDEKO APUSTUA EGINEZ

| 5.1.1 | Donostiako HMJP berrikustea eta aurreikusitako ekintza guztiak garatzea, Mugikortasunaren Aholku Batzordeak dinamizatuta | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorrerako plana berrikustea eta garatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Donostiako HMJP berrikustea, indarrean dagoen planean aurreikusitako helburuak eta ekintzak ebaluatuta eta eguneratuta. DHMJP planean aurreikusitako ekintzak garatzea, mugikortasunarekin lotutako plan eta azpi-plan guztien jarraipena egiteko programa integratu baten bitartez, Planaren adierazleen aldizkako jarraipena eginez. Ekintza hori, nagusiki, udal departamentuak berak egingo du, 2024. urteko denbora-helmuga kontuan hartuta. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.1.2 | Lurraldeko eta arloko plangintzak ebaluatzea eta horiengan eragitea, hiriarteko Mugikortasunaren gaineko eraginei dagokienez. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorrerako plana berrikustea eta garatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udalaz gaindiko plangintzako tresnen jarraipena egitea, horiek hiriarteko eta hiri barruko mugikortasunarengan duten eragina ebaluatzeko eta plangintzok prestatzeko eta eztabaidatzeko faseetan eragina izateko helburuz. Lurraldearen Zatiko Planaren (LZP) berrikuspena bereziki kontuan hartzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Lurraldea eta antolamendua | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA |

<table>
<tr><td>5.2.1</td><td colspan="3">Oinezkoen egoerari buruzko diagnostikoa prestatzea eta oinezkoentzako ibilbide-sarea eta espazio publikoak osatzen eta antolatzen jarraitzeko jarduerak egitea</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">5.2. Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Oinezkoen ibilbideen ezaugarrien eta funtzionaltasunaren diagnostikotik abiatuta, oinezkoentzako ibilbide-sarea osatzea ahalbidetzen duten jarduerak diseinatzea eta ezartzea, kalitateari, irisgarritasunari, bidegurutzeetako segurtasuna hobetzeari, semaforo bidezko erregulazioari eta beste hainbati dagozkion alderdiak kontuan hartuta.<br><br>Bestalde, espazio publikoa egoteko espazio gisa kontuan hartzea, eta espazio horien kalitatea aztertzea.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Mugikortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Osasuna</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>5.2.2</td><td colspan="3">Inguruko udalerriekin lotzeko bidegorri-sarea hedatzea eta aparkaleku-sarea osatzea eta dibertsifikatzea</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">5.2. Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Hiri barruko sarea (motordun ibilgailuen sarearekiko bidegurutzeak kontuan hartuta) eta aparkaleku-sarea (publikoak eta pribatuak) osatzea. Bizikleta eta autobusa bateratzeko aukera aztertzea</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Altua</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Mugikortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td>Udala-Mugikortasuna</td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Osasuna</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA</td></tr>
</table>

| 5.2.3 | Mugikortasun Bertikaleko Planeko egiteke dauden jarduerak berrikustea eta garatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.2. Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Oraindik egiteke dauden Mugikortasun Bertikaleko Planeko ekintzak berrikustea eta, egutegi berri batetik abiatuta, ekintza horiek garatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.2.4 | Irisgarritasun Plana ebaluatzea eta haren jarraipena egitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.2. Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Donostiako Irisgarritasunerako Plan Zuzendaria (2005ean idatzi zena) partzialki garatu da. Beharrezkoa da planaren garapen-maila aztertzea eta egiteke dauden jardu横retarako egutegia zehaztea, lehentasunen arabera. Plan hori garatzeko arduradun tekniko bat izendatu beharra dago. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.2.5 | dBizi zerbitzua goiko zonetara hedatzea eta funtzionamenduaren jarraipena egitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.2. Motordunak ez diren garraiobideak eta irisgarritasun unibertsala bultzatzea eta sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| dBizi zerbitzuaren aparkatzeko guneen sarea osatzea, batez ere, Donostiako goiko aldeetan (Egia, Intxaurrondo, Aiete eta Altza auzoetan). Zerbitzuaren erabileraren jarraipena egitea eta jarraipen horren ebaluazioaren ondorioz beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak gauzatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 5.3.1 | Autobus geltokia martxan jartzea eta garraio publikoko eta pribatuko gainerako sarearekiko egungo eta etorkizuneko konexioen jarraipena egitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Autobus geltoki nagusi berria martxan jartzen denerako neurriak diseinatzea, modu koordinatuan eta sinkronizatuan. Garraio publikoko eta pribatuko gainerako sarearekiko egungo eta etorkizuneko konexio zerbitzuen bilakaeraren jarraipena egitea | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Eusko Tren<br>RENFE<br>Autoridad de Transporte<br>Diputación Foral de Guipuzkoa |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.2 | dBus zerbitzuaren kalitatea progresiboki hobetzen jarraitzea, zerbitzuak hedatuz | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| dBus zerbitzuaren Plana garatzen jarraitzea eta plan hori aztertzea, zerbitzuaren kalitatea hobetzeari garrantzia berezia emanez, zerbitzuak hedatuz eta zerbitzu berriak gehituz. Zerbitzuaren kudeaketan zirkulazioko abiadurari dagozkion irizpideak sartzea, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuta. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Dbus | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.3 | Garraio publikoko hiriko eta hiriarteko zerbitzu anitzen arteko koordinazioa bultzatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Hiriarteko garraio publikoko zerbitzuen bilakaera aztertzea eta Donostialdea Metroaren proiektuaren bilakaeraren jarraipena egitea. Azterketaren ondorioak, aldizka, hiriarteko garraioaren arloko eskudun agintariei helaraztea. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Dbus<br>Garraioaren Agintaritza |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.4 | dBus zerbitzuko autobusak progresiboki berritzea, ibilgailu hibridoez ordeztuz | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| dBus zerbitzuko autobusak berritzea; ibilgailu berriak erosterakoan, autobus hibridoak lehenetsiko dira, energia eraginkortasuna hobetuz eta eragin akustikoa eta airearen kalitatearen gaineko eragina murriztuz. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Dbus | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.5 | Pixkanaka, dBus zerbitzuko autobusak elektrifikatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Pixkanaka, ibilgailu elektrikoak sartzea, haien bideragarritasuna ziurta daitekeen heinean | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Dbus | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.6 | dBus zerbitzuan energia kontsumoa murrizteko neurriak sartzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| dBus zerbitzuaren energia eraginkortasuna hobetzea eta kutsadura murriztea ahalbidetzen duten irtenbide teknologikoak eta autobus-ontzidia kudeatzeko irtenbideak sartzea (adibidez, Start and Stop teknologia) | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Dbus | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.7 | Garraiobide guztietarako tarifa-sistema bateratu baterantz aurrera egitea (EAE mailan) | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| MUGI txartela sartzea DBIzi zerbitzua eta garraiobide mota anitzak barne hartuko dituen tarifa-sisteman. Tarifa sozialak eta kolektibo ahulenentzako tarifak ezartzeko irizpideen jarraipena sartzea | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Dbus<br>Garraioaren Agintaritza |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.3.8 | Ibilgailu pribatuaren eta garraio publikoaren arteko lotura egingo duten aparkamendu gomendatuak sustatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.3. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Periferian, baina garraio publikoko sistemarekin lotura ona izango duten aparkalekuak jartzeko ebaluazioa egitea. Eraikuntza-proiektuak lehentasun batzuei jarraituz garatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Dbus<br>Garraioaren Agintaritza |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.4.1 | Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko motibazioa eragitea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.4. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Aparkatzeko joera gutxitzea edo eskaintza murriztea (tarifa handiagoak, egoiliarrentzako edo minusbaliatuentzako gordetzea…) eta autoari erreserbatutako espazioa murriztea, bidegorriak, autobusentzako errailak, oinezkoentzako guneak eta abar jarriz. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.4.2 | 30eko zonak osatzea hiriaren hiri-bilbe osoan eta hiri barruko bideetan trafikoa lasaitzeko neurriak ezartzen jarraitzea, eskola-bideekin koordinatuz | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.4. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| 30eko zonen ezarpen-maila eta lehentasunak ebaluatzea, haien hedadurari dagokionez, hiriaren hiri-bilbe osoan. Hiri barruko bideetan trafikoa lasaitzeko neurrien ezarpen progresiboa programatzea, istripu-tasei dagozkien alderdiak eta ingurumen- eta hiri-parametroak kontuan hartuta. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 5.4.3 | Aparkalekuen Plan Estrategikoa lantzea eta garatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.4. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Donostiako Aparkalekuen Plana prestatzea, egoiliarrentzako, bisitarientzako eta jarduera ekonomikoentzako eskaintzaren eta eskariaren azterketatik abiatuta. Galtzadako aparkamenduak arautzeko eta murrizteko aurreikusitako ekintzak garatzea eta horien jarraipena egitea, betetzen diren egiaztatzeko. Intermodaletako aparkalekuak Planean sartzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.4.4 | Herritarrek, ibilgailu berriak erosterakoan, kontsumoari eta isurketei dagozkien irizpideak kontuan har ditzatela bultzatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.4. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Gutxien kutsatzen duten ibilgailuak sustatzeko eta gehien kutsatzen dutenak saihesteko neurri fiskalak ezartzea. Aparkamenduan tarifa berezituko neurriak ezartzea. Ibilgailu elektrikoen (motoa, autoa eta bizikleta) aldeko aukera eta horiek ugaldu daitezen beharrezkoak diren azpiegiturak bultzatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.5** | **Aforo-puntuetako informazioa eta trafikoak hiri-ingurunean duen eraginari buruzkoa hobetzea** | | |
| **Programa** | 5.4. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Trafikoari buruzko datuak denbora errealean biltzeko sarea ezartzea, trafikoaren kudeaketa hobetzeko eta erabiltzaileari informazioa helarazteko aplikazioen garapena bultzatzeko helburuz. Trafikoak eragindako zarata aldizka neurtzeko sonometro-sarea ezartzea, trafikoak hiriko bide nagusietan eta hainbat espazio publikotan eragiten duen zarata-mapa dinamiko bat edukitzeko helburuz. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

<table>
<tr><td>5.5.1</td><td colspan="3">RENFE eta EuskoTrenbideak erakundeekin esparru-akordioa garatzea, aldirietako geltokien konexioak hobetzeko.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">5.5. Hirira sartzeko eta hiria bisitatzeko garraio publikoaren eta ibilgailu pribatuaren ordezko bestelako garraiobideen erabilera bultzatzea eta sustatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">RENFErekin esparru-akordioa garatzea, Estatuko eta Europako leku anitzekiko trenbide bidezko konexioak hobetzeko helburuz.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Ertaina (2017-2018)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">1.500-4.500 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Mugikortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td>Plan Estrategikoa</td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Mugikortasuna eta garraioa</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>5.5.2</td><td colspan="3">Hurbileko turismo-azoketan hiriranzko turismoa sustatzea, garraiobide publikoen – txartel bakar bateratuekin – eta bizikletaren erabilerarekin.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">5.5. Hirira sartzeko eta hiria bisitatzeko garraio publikoaren eta ibilgailu pribatuaren ordezko bestelako garraiobideen erabilera bultzatzea eta sustatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Hurbileko turismo-azoketarako berariazko komunikazio-kanpainak egitea, hirira sartzeko zein hiri barruko joan-etorrietarako garraiobide publikoen erabilera sustatuz. Arreta berezia eskaintzea txartel bakar bateratuen erabilerari</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Ertaina (2017-2018)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">20.000-45.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Mugikortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Mugikortasuna eta garraioa</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA</td></tr>
</table>

| 5.6.1 | **Salgaiak banatzeko ibilgailu garbien erabilera sustatzea.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.6. Salgaien banaketan eraginkortasuna hobetzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Sektore logistikoari eta komertzialari, gremioei eta enpresa pribatuei zuzendutako berariazko neurri fiskalak eta komunikazio-kanpainak garatzea, isurketa txikiko ibilgailuen erabilera sustatzeko (dagoeneko martxan den bizikleta laguntzailearen esperientzia barne). | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.6.2 | **Alde Zaharreko salgaien banaketari buruzko ordenantzaren ezarpenaren jarraipena egitea eta, oro har, hirian zamalanak arautzeko neurriak ebaluatzea** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.6. Salgaien banaketan eraginkortasuna hobetzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Alde Zaharreko salgaien banaketari buruzko ordenantzaren ezarpenaren jarraipena egitea eta ebaluazio horren ondorioz beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzetarako jarduerak bultzatzea. Hiri osoko zamalanak arautzeko neurriak ebaluatzea eta hiriaren kalitatearen gaineko eraginak murrizteko erregulazioko jarduera egokiak sustatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.7.1 | **Udalerako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana prestatzea.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.7. Udaletxean mugikortasunaren ondorioz sortzen diren isurketak murriztea, mugikortasun iraunkorrerako jardunbideen bitartez | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udal langileen ohiturei buruzko inkesta batetik abiatuta, Udalerako Lanerako Mugikortasun Plana prestatzea, lanera joateko eta lanaldi barruko garraio-moduak aldatzeko jarduerak sustatzeko helburuz. Sartu beharreko jarduera zehatzen artean, honakoak nabarmen daitezke: udal eraikinen barruan bizikletentzako aparkalekuak indartzea; kutsakorrak ez diren garraiobideak erabiltzeagatiko pizgarriak; lanorduetako joan-etorrietan eraginkortasuna hobetzea eta barneko posta-banaketa bizikletaz egitea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.7.2 | **Ingurumen-irizpideak sartzea, Udalaren beraren ontzidiari dagozkion pleguetan eta kontraten ontzidiari dagokionez** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 5.7. Udaletxean mugikortasunaren ondorioz sortzen diren isurketak murriztea, mugikortasun iraunkorrerako jardunbideen bitartez | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udal ibilgailuen erabileraren eta energia eraginkortasunaren aldizkako jarraipena egitea, energia eta ingurumen kostuak murrizteko kudeaketako neurriak aplikatzea ahalbidetuko duena. Garatu beharreko neurrien artean, nabarmentzekoak dira honakoak: erregai garbiak erabiltzen dituzten ibilgailuak eta eraginkortasun handiko ibilgailuak sartzea eta ontzidiaren erabileran eraginkortasuneko neurriak ezartzea (ibilbideak, zama, ibilgailua-zama egokitzea, etab.). Udal ibilgailuei zein zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresen ibilgailuei egin behar zaie jarraipen hori. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | Gainontzeko Sailak |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.8.1 | Kutsadurak osasunarengan dituen eraginei eta mugikortasun aktiboaren garrantziari buruzko komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea. |
|---|---|
| Programa | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

| Deskribapena: | | | |
|---|---|---|---|
| Hiriko airearen kalitatearengan garraioaren ondoriozko kutsadurak dauzkan eraginei buruzko berariazko komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina diseinatzea eta garatzea. Kanpaina horren barruan, webgune bat egingo da, atmosferaren kutsadurari buruzko datuak eta informazio meteorologikoa eskainiko dituena. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Ingurumena |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 5.8.2 | Mugikortasun Iraunkorrerako Hezkuntza Programa urtero eguneratzea eta garatzea, Eskola-bideen sarea osatuz |
|---|---|
| Programa | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

| Deskribapena: | | | |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeei zuzendutako mugikortasun iraunkorrerako Hezkuntza Programarekin jarraitzea (Eskolako Mugikortasun segurua, osasungarria eta iraunkorra). Eskola-bideen sarea modu koordinatuan osatzea, oraindik garatu ez duten ikastetxeekin lan eginez eta oraindik garatzeke dauden ekintzak gauzatuz. Eskolako Mugikortasun seguru, osasungarri eta iraunkorrerako Mahai Teknikoaren lanarekin jarraitzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

| 5.8.3 | Garraio publikoaren informazio-zerbitzuak hobetzen eta bateratzen jarraitzea |
|---|---|
| **Programa** | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Deskribapena:** | | | |
| Garraio publikoaren erabiltzaileei informazioa eskaintzeko zerbitzuetan hobekuntzak garatzen jarraitzea, dela webgunean, geralekuetako paneletan edo ibilgailuetan; baita aplikazio berriak garatzeko informazio irekia sortzeko lana sustatzen ere. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Dbus | **Beste Arduradunak** | Udala-Mugikortasuna<br>Garraioaren Agintaritza<br>Gipuzkoako Foru Aldundia |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.8.4 | Ibilgailu pribatuaren ordezko garraiobideak sustatzea, hiriko kolektibo anitzekin lankidetzan (merkatariak…) |
|---|---|
| **Programa** | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Deskribapena:** | | | |
| Ibilgailu pribatuaren ordezko garraiobideen erabilera sustatzen jarraitzea, promozio-kanpainen bitartez; hala nola, Mugikortasun iraunkor eta seguruaren Astea edota neguan bizikleta erabiltzeko berariazko kanpaina (prestatze-fasean). Kanpainak antolatzea, hiriko kolektibo anitzekin lankidetzan (merkatariak, erabiltzaileak, kirolariak, etab.). Generoaren ikuspuntua kontuan hartzea eta kolektiboentzako (hirugarren adinekoak, gazteak, etab.) berariazko kanpainak garatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.8.5 | Garraio Planetan aurreikusitako ekintzak garatzea jarduera ekonomikoko guneetan |
|---|---|
| **Programa** | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

**Deskribapena:**

Jarduera ekonomikoko guneetan Garraio Planetan aurreikusitako ekintzak gara daitezen bultzatzea (Miramon, 27. Industrialdea eta Zuatzu aurreratuago daude), horien ezarpenaren jarraipena eginez eta ekintza horiek garatzeko ardura duten erakunde anitzei laguntza emanez.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA |

| 5.8.6 | Bizikletaren Behatokiaren zereginekin jarraitzea eta horiek hobetzea, behatokiaren irismena oinezkoen mugikortasunerantz hedatuz |
|---|---|
| **Programa** | 5.8. Mugikortasun iraunkorrerako jardunbideei eta horiek osasunarengan duten eragin positiboari buruzko informazioa ematea herritarrei eta horren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea |

**Deskribapena:**

Bizikletaren Behatokiak egindako lanari eustea eta oinezkoen mugikortasunarekin lotutako alderdiak ere sartzea, oinezkoekin lotutako erakunde sozialak ere kontuan hartuta.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Mugikortasuna<br>Kalapie | **Beste Arduradunak** | Cristina Enea Fundazioa |
| **Gaia** | Mugikortasuna eta garraioa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |



# 6. ILDO ESTRATEGIKOA

## ENERGIA ERAGINKORTASUNEAN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BULKADAN TOKIKO EKINTZA INDARTZEA ETA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO JARDUNEAN AURRERA EGITEA

| 6.1.1 | Hiriko Smart Plana prestatzea eta betearaztea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Ekintza honen helburua da Donostiak Smart Plana edo hiri adimentsuaren plana izatea. Lehenik eta behin, Plana diseinatzen amaitu beharko da, sektore bakoitzerako neurriak ezarri eta haiek betearazteko modua planifikatu. Behin Plana onartu ondoren eta ezarritako lehentasunetan oinarrituta, erabakitako neurriak betetzen joango da urtero. Planaren ebaluazioa eta jarraipena egingo da, emaitzak baloratzeko. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA |

| 6.1.2 | Karbono-aztarnaren kalkulua beste esparru batzuetara hedatzea eta bultzatzea (merkataritza, turismoa, industria, gertaerak) | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Karbono-aztarna produktu, zerbitzu edo erakunde jakin baten Berotegi-efektuko Gasen (BEG) isurketak neurtzeko mekanismoa da. Informazio hori edukita, errazagoa da energiari eta ingurumenari dagokionez emaitza eraginkorragoak lortzeko erabakiak hartzea eta horrek eragina dauka erakundearen emaitza ekonomikoen hobekuntzan.<br><br>Ekintza horrek karbono-aztarnaren kalkulua erakundeen ingurumen hobekuntza bultzatzeko tresna gisa sustatzea jasotzen du, era horretan, klima aldaketa moteltzeko ekintza sustatuz. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA |

| 6.1.3 | Berotegi-efektuko gasen hustubideen tokiko inbentarioa egitea |
|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea |

**Deskribapena:**

Atmosferako berotegi-efektuko gasen presentziaren balantzean, sistemara isurketa gisa gertatzen diren sarrerak zein finkapen bidez gertatzen diren irteerak hartzen dira kontuan.

IPCC erakundearen Jarraibideen arabera, ekosistemek atmosferatik hartzen duten karbonoaren estimazioa egiteko, kontuan hartzen dira sei lurzoru kategoriak (baso-lurrek, laborantzek, larreek, hezeguneek, hiri-lurrek eta bestelakoek) okupatutako azalera eta, denbora tarte jakin batean, lurzoruaren okupazioan gertatutako aldaketak.

Ekintza horren barruan sartzen dira Donostiako karbono hustubideen inbentarioaren kalkulua eta kalkulu hori aldizka eguneratzea, udalerriko berotegi-efektuko gasen balantze osoa ezagutzeko helburuz.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 1.500-4.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA |

| 6.1.4 | Klima aldaketara egokitzeko estrategia onartzea |
|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea |

**Deskribapena:**

Klima aldaketara egokitzeko estrategia bat prestatzea eta onartzea da fenomeno hori kudeatzeko beharraren aurrean hiriak daukan konpromisoan eman beharreko hurrengo urratsa. Konpromiso horrek izaera publikoa eta nazioartekoa dauka Donostia Europar Batasunaren ‘Mayors Adapt’ ekimenari atxiki zitzaionetik; ‘Mayors Adapt’ ekimenak klima aldaketarekiko egokitzapenean hirien lidergoa sustatzen du.

Egokitzapen-estrategia idazterakoan honakoak hartuko dira kontuan, gutxienez:

* Tartean dauden eragileak identifikatzea eta eragile horien barne-koordinaziorako mekanismo bat ezartzea.

* Klima aldaketarekin lotutako eraginak identifikatzea eta daukaten urrakortasun-mailaren eta Donostian gertatzeko probabilitatearen balorazioa egitea.

* Giltzarriak diren eraginak eta jarduteko lehentasunezko esparruak identifikatzea.

* Estrategiaren helburuak eta ekintzak definitzea.

* Ebaluazio- eta jarraipen-sistema definitzea.

* Prozesuan zeharreko komunikaziorako eta parte hartzeko mekanismoak ezartzea.

* Egokitzapen-estrategiak Tokiko Agenda 21 programaren barruan integratzeko mekanismoa definitzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA |

| 6.1.5 | **BEGen isurketen inbentarioaren eta klima aldaketa moteltzeko eta aldaketa horretara egokitzeko ekintzaren emaitzak aldizka argitaratzea.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea |

**Deskribapena:**

Helburua da berotegi-efektuko gasen udalerriko eta Udaleko isurketen emaitzak inplikatutako eragileei eta, oro har, herritarrei ezagutaraztea, era horretan, ingurumenari dagokion informazioa eskuragarri egotea bermatuz eta gai horren ezagutzan eta jarraipenean lagunduz.

Ekintza horren barruan sartzen dira:

* BEGen inbentarioen aldizkako kalkulua.

* Emaitzak argitaratzea, emaitza horiek ulertzen eta hartutako konpromisoekiko emaitzen bilakaera aztertzen lagunduko duen testuinguruari buruzko informazioarekin.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 10. TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA |

| 6.1.6 | **Sektore anitzak sentsibilizatzea eta haien erantzunkidetasuna sustatzea klima aldaketa moteltzeko eta aldaketa horretara egokitzeko gaiari dagokionez.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.1 Klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko tokiko ekintza planifikatzea eta emaitzen jarraipena egitea |

**Deskribapena:**

Herritarren sektore anitzei (herritarrak, zerbitzu sektorea, industria sektorea, etab.) informazioa eskaintzea, klima aldaketaren fenomenoa eta horren epe laburrerako, ertainerako eta luzerako ondorioak ezagutarazteko eta berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko eta fenomeno horren ondorioetara egokitzeko jarduna sustatzeko helburuz.

Ekintza horrek ondorengo jarduerak jasotzen ditu:

* Udalaren webgunean klima aldaketari buruzko berariazko espazio bat eguneratuta edukitzea.

* Dibulgazioko berariazko bestelako jarduerak gauzatzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 1.500-4.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Klima aldaketa eta inpaktu orokorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |

| 6.2.1 | **Donostiako Sustapenak kudeatzen dituen eta energia berriztagarriak eta eraginkortasun irizpideak dituzten eraikinen jarraipena egitea, horiek optimizatzea eta mantentzea: PIA, TH, Uba, ENERTIC, Etxetxuri.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Azkeneko urteotan, irizpide bioklimatikoak dituzten hainbat eraikin eraiki dira, Sustapena Sozietateak kudeatzen dituenak: PIA, Talent House, Uba Aterpetxea, Enertic eta Etxetxuri. Ekintzaren helburua da eraikin horien funtzionamenduaren jarraipen sakona egitea, energia kontsumoak minimizatzeko beharrezko eraginkortasun baldintzak bermatzeko. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.2 | **Galdara eta hotz-sistema zaharrenak eta eraginkortasun txikienekoak berritzea, horien ordez eskuragarri dauden teknologiarik eta ekiporik onenak jarrita, eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Udalaren bulego eta egoitzetako airea girotzeko ekipoen errendimendua hobetzea proposatzen da, ekipo zaharrenen eta eraginkortasun txikienekoen ordez eskuragarri dauden teknologiarik oneneko eraginkortasun handiko ekipo berriak jarriz. Ondorengo bi ordezte motak hartuko dira kontuan:

1) Galdara estandarren ordez kondentsazio-galdarak edo tenperatura baxukoak jartzea.

Dauden galdaren ordez kondentsazio-galdarak jartzea; azken horiek errendimendu handikoak dira (% 110eko *BBA). Konbustioko keen kondentsazioaren berotasuna aprobetxatuta lortzen da eraginkortasun handiagoa. Teknologia horrek konbustioko gasetan sortzen den lurruna aprobetxatzen du eta likido-egoeran itzultzen du. Galdara atmosferiko klasiko batean, bero sorraren zati garrantzitsu bat keen bitartez kanporatzen da; horrek konbustioko produktuen tenperatura oso altua dakar, 150º ingurukoa. Kondentsazio-galdara bat erabilita, berriz, bero sorraren zati garrantzitsua berreskuratzen da, era horretan, gas kutsagarrien isurketak mugatuz. Gaur egungo kondentsazio-galdara edo tenperatura baxuko galdara baten errendimendua galdara konbentzional batena baino % 10 handiagoa izatera irits daiteke.

Hamar urte baino gehiago daukaten edo berogailurako ur beroa sortzeko errendimendu baxua duten galdarak aldatzea komeni da.

17 ekipamendutako galdarak aldatzea proposatzen da; energia kontsumo osoaren eta sistemaren eraginkortasunean duten hobekuntzarako marjinaren arabera aukeratu eta lehenetsi dira ekipamenduok (ikus eranskina).

2) Errendimendu (COP) txikiagoak dituzten airea girotzeko hamar urtetik gorako ekipoen ordez errendimendu-koefiziente (COP) handiagokoak jartzea. Teknologia berriei esker, gaur egun, gutxienez 3.5eko errendimendu-koefizienteak dituzten bero-ponpak daude, eta teknologia berri guzti horien artean sistema geotermikoa gailentzen da; sistema hori 5eko COP izatera irits daiteke.

Gutxienez 3.5eko COP duen bero-ponpa aldatzea proposatzen da (ikus Eko-Ordenantzaren ekipoen eta fluido eroalearen araberako betebeharrak) (ur beroaren ponpentzako betebeharra: 4,4, B klasea); aldaketa horiek energia kontsumo osoaren eta sistemaren eraginkortasunean duten hobekuntzarako marjinaren arabera aukeratu eta lehenetsitako 7 ekipamendutan egingo dira (ikus eranskina).

Behin aldaketa biak egin ondoren, horien funtzionamenduaren ebaluazioa eta jarraipena egingo da.

| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
|---|---|---|---|
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala-Hezkuntza<br>Udala-Kultur Patronatua<br>Udala-Kiroletako Patronatua<br>Udala-Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |

| 6.2.3 | **Airea girotzeko sistemen eraginkortasuna handitzea, sistema eskasak edo hobetu daitezkeen sistemak dituzten eraikinetan, eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Eraginkortasuna hobetzea proposatzen da, unitate terminalen zonakatze onik ez dagoen sistema zaharretan.

Horretarako, birdimentsionamendu bat egingo da, potentzia, unitate kopurua eta banaketa girotu beharreko zona anitzen beharretara egokituz. Horri esker, eraginkortasun handiko sistemekin erantzungo zaio energia eta konfort termikoaren eskariari.

Lortutako emaitzen ebaluazioa eta jarraipena egingo da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala-Hezkuntza<br>Udala-Kultur Patronatua<br>Udala-Kiroletako Patronatua<br>Udala-Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.4 | **Eraikuntza berrietan isolamenduak sendotzea eta airea girotzeko eta etxeko ur beroaren sistemak erregulatzeko sistemak jartzea eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Instalazioen punturik kritikoenetan berogailu sistema, airea girotzeko sistema eta/edo etxeko ur beroaren sistemaren banaketan, isolamenduaren lodiera handitzea eta, airea girotzeko sistemak erregulatuta, sistemen errendimendua maximizatzea proposatzen da, ondoren adierazten diren jardueren bitartez:

* Berogailuaren eta airea girotzeko instalazioen erregulazio-sistemen eraginkortasuna optimizatzea, programagailuak eta kanpoko tenperaturaren zundak erabiliz.

* Erradiadoreetan balbula termostatikoak jartzea.

* Urruneko kontroleko termostatoak jartzea, kableen kanalizazioa saihesteko eta instalazioa errazteko, eta haien kokapena, programazioa eta tenperatura definitzea.

* Hodiak isolatzea, berogailurik gabeko zonetan.

* Zonaka, erregulazio-sistemak jartzea, elektrobalbulekin.

* Airea girotzeko zirkuituetan erloju programagarria jartzea.

* Ordutegi-erregulatzaileak jartzea, etxeko ura berotzeko ur-berogailu elektrikodun sistemetan.

* Galdararen keak ateratzeko bidea isolatzea.

* Kanpoko zundaren arabera programa daitekeen erregulazio-zentralita jartzea.

* Asteko ordutegi-programatzailea jartzea, airea girotzeko eta berogailu-ekipoen funtzionamendua kontrolatzeko.

* Ur-kontsumoaren puntuetan emaria airez betetzeko gailuak jartzea, Etxeko Ur Beroaren kontsumo-puntuei lehentasuna emanez.

* Hotz-sistemak kontrolatzen dituzten termostatoak kontrolatzea, ez daitezen erabiltzaileen eskumenean geratu; gutxienez, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren exijentziak betez.

Isolatzeen kasuan zorrotz bete beharko da, gutxienez, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (RITE); eta ahalik eta erregulazio-sistema aurreratuenak ezarrita, RITE erregelamenduak galdatzen duena baino harago.

Lortutako emaitzen ebaluazioa eta jarraipena egingo da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala-Hezkuntza<br>Udala-Kultur Patronatua<br>Udala-Kiroletako Patronatua<br>Udala-Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.2.5</td><td colspan="3">Birgaitzeetan isolamenduak sendotzea eta airea girotzeko eta etxeko ur beroaren sistemak erregulatzeko sistemak jartzea eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Berogailu sistema, airea girotzeko sistema eta/edo etxeko ur beroaren sistemaren banaketan isolamendua hobetzea proposatzen da, hori hondatuta dagoen eraikinetan. Akasdun isolamendu horren ondorioz, erregai kontsumo osoaren % 7ra arteko energia galerak sor daitezke.<br><br>Airea girotzeko sistemen erregulazioa hobetzeko, ondorengo jarduerak planteatzen dira:<br>* Berogailu-instalazioak eta airea girotzekoak erregulatzeko eskuzko sistemen ordez programagailuak eta kanpoko tenperaturaren zundak jartzea, eta erregulazio-programa eraginkorra aktibatzea.<br>* Erradiadoreetan balbula termostatikoak jartzea.<br>* Irrati bidezko termostatoa jartzea eta haren kokapena, programazioa eta tenperaturak definitzea.<br>* Hodiak isolatzea, berogailurik gabeko zonetan.<br>* Erregulazio-sistema hobetzea zonaka elektrobalkulak jarrita.<br>* Airea girotzeko zirkuituan erloju programagarria jartzea.<br>* Ordutegi-erregulatzaileak jartzea, etxeko ura berotzeko ur-berogailu elektrikodun sistemetan.<br>* Galdararen keak ateratzeko bidearen isolamendua hobetzea.<br>* Kanpoko zundaren arabera programa daitekeen erregulazio-zentralita jartzea.<br>* Asteko ordutegi-programatzailea jartzea, airea girotzeko eta berogailu-ekipoen funtzionamendua kontrolatzeko.<br>* Ur-kontsumoaren puntuetan emaria airez betetzeko gailuak jartzea, Etxeko Ur Beroaren kontsumo-puntuei lehentasuna emanez.<br>* Hotz-sistemak kontrolatzen dituzten termostatoak kontrolatzea, ez daitezen edonoren eskumenean geratu.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala-Hezkuntza<br>Udala-Kultur Patronatua<br>Udala-Kiroletako Patronatua<br>Udala-Etxegintza</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.2.6 | **Eraikinen argiztapen-instalazioetan eraginkorrak ez diren osagaien ordez kontsumo txikiko osagai berriak jartzea eta kontrol-sistema berritzaileak gehitzea, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa eginez.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Ondorengo jarduerak proposatzen dira, argiztapen-sistemen energia eraginkortasuna hobetzeko:

* Hobetzeko aukerak eskaintzen dituzten eraikinetan argiztapenaren zonakatzea eta argiztapenerako linea elektrikoen sektorizazioa hobetzea.

* Dauden argi-mailak aztertzea eta argiztapen artifiziala birdefinitzea.

* Presentzia-sentsoreak, tenporizadoreak eta programagailuak jartzea eraikinetako komunetan, eskaileretan eta korridoreetan.

* Argiak pizteko zelula fotosentikorra jartzea, argi naturala aprobetxatzeko.

* Goritasun-lanparen ordez kontsumo txikikoak jartzea.

* Lanpara halogenoen ordez kontsumo txikikoak jartzea.

* Argi eta erreaktantzia elektromagnetikoen ordez fluoreszente elektronikoak jartzea.

* Argiak pizteko eskuzko erregulazioa jartzea, argi naturala aprobetxatzeko.

* Erauzgailuetan tenporizadoreak jartzea.

* Argiak pizteko sektorizazioa hobetzea.

* Argiteria erregulatzeko eraikin osorako sistema zentralizatua eta eraikinaren kanpoaldeko argiteria kontrolatzeko erloju astronomikoa jartzea.

* Eraikinen kanpoaldeko argiterian, VM lanparen ordez VSAP lanparak jartzea.

* Bideragarria den kasuetan, udal eraikinen argiteria pizteko sektorizazioa hobetzea, batez ere, eskoletan, eskola orduetatik kanpo ikasgela eta korridoreetako argi guztiak martxan egotea saihesteko; hori guztia, gaueko segurtasunerako argiztapenari dagokionez udaltzaingoak emandako gomendioekin bat etorriz.

Lortutako emaitzen ebaluazioa eta jarraipena egingo da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Hezkuntza<br>Udala- Kultur Patronatua<br>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Etxegintza<br>PARVISA | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.7 | **Eraikinen inguratzaile termikoak hobetzea eta neurri bioklimatikoak, aireztapen naturala eta eguzki-babesak jartzea, eraikin pasiboen eraikuntza sustatuz.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Inguratzaile termikoa hobetzea proposatzen da, haien ezaugarriengatik horretarako aukera ematen duten eraikinetan; horri esker, energia eskaria murriztu eta konfort termikoa, inertziak, airearen iragazkortasuna eta eguzki erradiazioarekiko esposizioa hobetuko dira.

Honako jarduerak proposatzen dira:

* Beira sinpleen ordez aire-ganberadun eta eguzki-kontroldun beira bikoitzak jartzea.

* Eraikinen estankotasuna hobetzea, irekiguneetako iragazketa-maila minimizatuz, ateak eta leihoak hobeto doituz eta ixteko zintak eta aparra jarriz.

* Eraikinaren sarreran ate bikoitza jartzea.

* Ekipamenduetan estalki berdeak jartzea.

* Barruko eguzki-babesak jartzea.

* Kanpoko eguzki-babesak jartzea.

* Isolamendu termikoa eta akustikoa daukan sabai faltsua jartzea.

* Eraikuntzaren isolamendu termikoa hobetzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Hezkuntza<br>Udala- Kultur Patronatua<br>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Etxegintza<br>PARVISA | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.8 | **Irizpideen eskuliburua idaztea eta ezartzea, udal barruan erabiltzeko eta kanpora ateratzen diren zerbitzuen energia gaien gaineko kontrolerako, eraikin berriek eta birgaitutakoek, gutxienez eta hurrenez hurren, A eta B energia-ziurtagiriak izan ditzaten** |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Irizpideen eskuliburua idaztea eta ezartzea, udal barruan erabiltzeko eta kanpora ateratzen diren zerbitzuen energia gaien gaineko kontrolerako, eraikiko diren eraikin berriei eta birgaituko diren eraikinen ondorengo alderdiak definituko dituena:

* Eraikuntza bioklimatikoa.

* Argiteria eraginkorra.

* Energia eraginkortasun handiko instalazioak.

* Energia berriztagarrien instalazioak.

Eskuliburuan jasotako irizpideak ezarrita, eraikin berriek A klaseko gutxieneko energia-ziurtagiria izatea eta birgaitutakoek B klaseko energia kalifikazioa izango dutela bermatu beharko da.

Aldi berean, titulartasun publikoko eraikin guztiek energia eraginkortasunaren ziurtagiria eskuratzea eta gutxieneko ziurtagiria lortzeko beharrezko neurriak ezartzea bermatu beharko da 2015. urtea amaitu aurretik, Eraikinen Energiari buruzko Zuzentarau berriak (2010/31/UE) definitzen duen bezala.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.2.9</td><td colspan="3">Kontsumo handieneko eraikinetan energia tele-kudeatzeko sistemak ezartzea, energiari dagozkion jardunbide egokien plan batekin batera, BEGIRALEA proiektuaren esperientziaren analisitik abiatuta.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Instalazioen energiaren kudeaketa eraginkorra lortzeko eta, ondorioz, energia aurrezpenak lortzeko, eta denboran zehar aurrezpen horri eusteko, beharrezkoa da energiaren kudeaketa (hornikuntzak eta konforta) eta instalazioen erabilera eta horien mantenu egokiaren ondoriozko jardunbideak (erregulazioari zein erabilerari dagozkionak) bateratuko dituen eredu bat; baita ekipoak ordezteko eta berritzeko inbertsioak egiteko aukera kontuan hartzea ere.<br><br>Energia kontsumoak tele-kudeaketako sistema baten bitartez kontrolatzea proposatzen da, energiari dagozkion jardunbide egokien plan bat lantzearekin batera; horiek eredu izango dira gainerako eraikinetarako, kudeaketa-eredu eraginkor bat definitzeko.<br><br>Neurri hori ezarrita, monitorizazioa ezartzen den eraikinetan % 15eko aurrezpena lortzea aurreikusten da</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Altua</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Hezkuntza<br>Udala- Kultur Patronatua<br>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Etxegintza</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **6.2.10** | **Prebentzioko mantenuaren ezarpena eta RITE erregelamenduaren exijentzia guztiak bermatzea, eraikin publiko guztietan dauden airea girotzeko eta etxeko ur beroaren instalazioetan.** |
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Ondorengo jarduerak jaso dira:

* Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendu (RITE) berria zorrotz betetzea; erregelamendu horrek, energiaren erabilera arrazionala lortzeko, berogailu, airea girotzeko eta etxeko ur beroaren instalazioen bitartez, ongizate termikoko eta higieneko eskariari erantzutera bideratutako instalazioek bete beharreko baldintzak ezartzen ditu.

* Prebentzioko mantenua progresiboki ezartzea, energia eraginkortasuneko eta aurrezpeneko gomendioak eta jarraibideak kontuan hartuta; gomendio eta jarraibide horiek instalazio jakin bakoitzerako ikuskapen, gainbegiratze, monitorizazio, adostasun-entsegu, egiaztatze, azterketa, erregulazio, doikuntza eta kontsumigarri eta osagaien ordezte sistematikoko aldizkako jarduera guztiak barne hartzen dituen mantenu-kudeaketa antolatzeko, definitzeko eta planifikatzeko esparru gisa balio dute; guzti horiek beharrezkoak dira funtzionamendu fidagarria ziurtatzeko, instalazioa erabilgarritasun, funtzionaltasun eta eraginkortasun baldintza onenetan kontserbatzeko helburuz.

* Bero- eta hotz-sistemen urte-sasoiko errendimenduen jarraipena egitea; jarraipen horri esker, eraikin baten berogailu-instalazioen, hotz-instalazioen eta etxeko ur beroaren instalazioen energia eraginkortasunaren jarraipena egin ahal izango da eta hori beharrezkoa da beharrezkoak izan daitezkeen jarduerak definitzeko eta energia kontsumoko ratio egokiari eusteko.

Udal eraikin guztietarako planteatzen da, eraikuntza berrikoak zein berritze-lanak egitea aurreikusita dagoen eraikin guztiak barne.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Hezkuntza<br>Udala- Kultur Patronatua<br>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.11 | Egungo garbiketa-kontratuan edo kontratu berrietan, garbiketako langileen jardunbide egokiak gehitzea, berogailuaren eta argiztapenaren kontrolari dagokionez. |
|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Egungo garbiketa-kontratuan edo kontratu berrietan, garbiketako langileen jardunbide egokiak gehitzea, berogailuari eta argiztatzeari dagokionez. Bi profil argi ezarri eta definituko dira; bata, argiztapenarena eta, bestea, berogailuarena, erabiltzen diren eraikinen eta erabilerarik gabekoen arteko bereizketa eginez. Kontuan hartuko dira gaueko segurtasuneko argiztapenari dagokionez udaltzaingoak emandako gomendioak.

Hartzen diren neurrien helburua izango da eraikin osoa ez uztea argiak eta airea girotzeko sistemak piztuta, eta eraikina jardunean ez badago, sistema horien erabilera-orduak ahalik eta gehien murrizten saiatzea.

Eskuliburua ezartzearekin batera, garbiketako langileei berariazko trebakuntza-saioak eskainiko zaizkie eta betetze-mailaren zein gerta daitezkeen gorabeheren jarraipena egingo da.

Neurri hori kultura, hezkuntza eta kirol jardueretarako eraikin guztietan ezartzea proposatzen da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Kontratazio eta Erosketak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.2.12</td><td colspan="3">Udalaren eta enpresa publikoen zerbitzu guztietarako energia kudeatzeko zentralizatutako softwarea ezartzea, kontsumoak kontrolatzeko eta energia kontabilizatzeko.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Hornikuntzen eta energia kontsumoen kudeaketan oinarritutako aplikazio informatikoko sistemak sartzea, enpresa merkaturatzaileen fakturazio-datuetatik eta, irakurketak egiten diren edo monitorizazio-sistemak dauden kasuetan, kontsumo-datu errealetatik abiatuta.<br><br>Kudeaketa eta informazio energetikoko sistemek, besteak beste, ondorengo funtzionalitateak izan ditzaten ahalegindu behar da:<br><br>* Aztertu beharreko kontsumoaren xehapen-mailaren araberako datuak eta grafikoak kontsultatzea (polizatik hasi eta iturrien araberako guztizko multzokatzeraino), bere bilakaeraren eta energia eraginkortasunaren adierazleak aztertzea eta, Benchmarkin-aren bitartez, hirugarrenekin alderatzea.<br>* Zentralizatutako kudeaketa sistemaren bitartez, fakturazioko gorabeheren jarraipena eta kontrola ahalbidetzen duten oharrak eta alarmak.<br><br>Neurri hori aplikatuta, energia kontsumoaren % 3ko aurrezpena lortzea planteatzen da.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Luzea (2019-2022)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">45.000-80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>6.2.13</td><td colspan="3">Esku-hartze sinboliko gisa eta oihartzun publikoa izate aldera, Tabakalera Eraikina B klaseko energia eraginkortasuneko irizpideekin birgaitzea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Tabakalera Eraikina birgaitzeko proiektuan energia eraginkortasun handiko airea girotzeko sistemak erabiltzeko irizpideak sartzea planteatzen da.<br><br>Aurkezten den proiektuan islatuko da irizpide horien aplikazioa; proiektu horrek eraikuntzetako energia eraginkortasunaren udal ordenantza bete eta, gutxienez, B klaseko energia-ziurtagiria lortu beharko du, proiektuan zein amaitutako obran.<br><br>Neurri hori aplikatzeari esker, energia aurrezpena lortuko da eta, era berean, eredutzat eta herritarren heziketarako ekintza gisa balioko du.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Proiektuak eta Obrak<br>Udala-Ingurumena<br>Udala-Kultur Patronatua</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **6.2.14** | **Udaleko langile teknikoentzako etengabeko prestakuntzako programa bat martxan jartzea, eraikin publikoetako energia instalazioen erabilera eraginkorrari buruzkoa.** |
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) |

**Deskribapena:**

Udal barruko langileen ingurumenarekiko jokaera egokia sustatzera bideratutako prestakuntzako esparru-programa bat garatzea eta ezartzea. Programa horrek ondorengo funtzioak izango ditu:

* Berariazko izaera teknikoko prestakuntzako jarduera guztiak identifikatzea eta eskaintzea, Udaleko langileen jardun profesionalaren barruan ingurumenaren alderdia integratzeko helburuz.

* Udaleko langileei ingurumenaren alorrean politikoki hartutako erabaki anitzen berri ematea eta udalerriak iraunkortasunarekiko eta klima aldaketa moteltzearekiko daukan konpromisoa ezagutaraztea.

* Iraunkortasunarekiko konpromiso horretan inplikatutako udal zerbitzu anitzen rolari buruzko informazioa ematea.

* Energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko jardun-protokoloa, sistema-kudeaketarena eta energia kontsumoko ekipoena ezagutaraztea. Energia aurrezpen handiagoa lortzeko, ondorengo gaiak lantzea proposatzen da: isolamendua, klimatizazioa (berotze- eta hotz-sistemak), etxeko ur beroa, argiztapena, ekipo elektrikoak eta igogailuak.

Udal ekipamenduen ingurumen-hobekuntzari dagokionez onura handiena ekar dakiekeen egitekoak dituzten langileei lehentasuna ematea proposatzen da; hala nola, ekipamenduen arduradunak, erosketa eta kontratazio zerbitzuko arduradunak, energia kudeaketarenak… Zentzu horretan, lehentasuna izango dute goi-kargudunek eta bitartekoek. Helburua da prestakuntzako tresnak ematea, bai Udalak berak zuzenean, bai eginkizun tekniko profesionalen barruan ingurumenari dagozkion irizpideak sartzea sustatzen duten eta beste organismo eta erakunde batzuek antolatzen dituzten ikastaroen bitartez jasotakoak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Giza Baliabideak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.2.15</td><td colspan="3">Kanpoko argiztapenari dagokionez energia eraginkortasunari buruzko araudia betetzen ez duten argiak eta argi-eraginkortasun txikiko argiak ordeztea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Zeruko argi-kutsadura prebenitzea, jarritako lanparen errendimendua hobetuz, lanparek ematen duten argiaren aprobetxamendu handiagoa ematen duten optikadun argiekin. Argia gehiago aprobetxatzen denez, kasu batzuetan, lanpararen potentzia murriztu ahal izango da, argiztatu beharreko bidean lortu nahi den argi-mailari eutsita.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Altua</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Hirigintza</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>6.2.16</td><td colspan="3">Pizteko kontrol-sistema gehiago jartzea, kontsumo handienekoei lehentasuna emanez.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia)</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Argiteriaren energia kontsumoa murriztu nahi da, pizte- eta itzaltze-aldiak gaueko orduei dagozkiela ziurtatuz.<br><br>Tele-kudeaketa eta erloju astronomiko bidezko pizte-sistemen instalazioa hedatzea proposatzen da; sistema horiek argiteriaren erabilera-orduak optimizatzea ahalbidetzen dute.<br><br>Gertatutako gorabeherei buruzko informazio xehatua edukitzeak pizte-sistemaren eta fluxua erregulatzeko jarri ahal izan diren sistemen matxurak edo hutsegiteak atzematea ahalbidetuko du.<br><br>Sistema horiek ezartzerakoan, energia kontsumo handienekoei emango zaie lehentasuna, potentzia handieneko 5 argi-koadroekin hasita.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">4.500-8.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Hirigintza</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.2.17 | Mantenuaren, energiaren kudeaketaren eta argiteriaren tele-kudeaketaren tresna informatikoak eta ebaluaziorako prozedurak integratzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Energiaren Informazio- eta Kudeaketa-sistema bateratu batek udalerrian jasotako kontsumoak eta fakturak aztertzeko eta ebaluatzeko aukera ematen du. Informazio horren eta automatikoki sortzen diren alarmen jarraipenari esker, instalazioen funtzionamendua ebaluatu eta zuzendu daiteke, energia aurrezpena eta aurrezpen ekonomikoa ziurtatuz. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Hirigintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.2.18 | LED teknologia ezartzen jarraitzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.2 Udalaren energia kontsumoa optimizatzea (argiteria publikoa, ekipamenduak eta ibilgailu-ontzidia) | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Argiteria publikorako potentzia handiko LED argiekin asko murriztu daiteke kontsumoa. Irtenbide hori erabiltzeko, garrantzitsua da LED teknologia erabiltzeko berariaz garatutako argiak jartzea. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Hirigintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.1 | Hiriko hiri-garapen berrietan energia eraginkortasun handiko irizpideak ezartzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Eraginkortasun irizpideak aplikatzea, energia aurrezpena eta hiri-eraldaketa iraunkorra lortzeko helburuz.<br><br>Hiri-garapen eraginkorrerako oinarrizko irizpideak honakoak dira:<br><br>* Hiri-plangintza hiri trinko eta espazialki jarraituaren hiri-ereduaren araberakoa izatea, uharteetan oinarritutakoa.<br>* Area guztietan erabileren aniztasuna integratzen duten hiri-garapenak, segregazio soziala edo ekonomikoa saihestuz.<br>* Arkitekturaren bioklimatismoa mesedetzen duen hiri-trazadura egokia.<br>* Bizitegi-dentsitate ertainak, ongizate psiko-fisikoa bermatzeko behar bestekoak direnak eta, aldi berean, harreman-maila handia ahalbidetzen dutenak, mantentze-kostu onargarriekin.<br>* Familia anitzeko etxebizitzak eraikitzen ahalegintzea, izan ere, eraikin handiak familia bakarreko etxebizitzak baino eraginkorragoak dira energiari dagokionez, bolumen/azalera erlazioa dela eta.<br>* Eraikin guztietarako gutxieneko energia berriztagarri zuzkidura arautzea.<br>* Barrutika edo etxebizitza-multzoka, baliabide naturalen aprobetxamendua sustatzea, eta unitate zentraletarako espazioak gordetzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hirigintza<br>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.2 | Hirian garatuko diren etxebizitza publikoetan A klaseko energia-ziurtagiria lortzea eta eraikuntza pasiboa sustatzea. |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Eraikinen energia eraginkortasunaren Ziurtagiria 2002/91/CE Zuzentarauaren ondoriozko exijentzia bat da; zuzentarau hori partzialki sartzen da Espainiako ordenamendu juridikoan, Eraikuntza berriko eraikinen energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarrizko prozedura onesten duen 47/2007 Errege Dekretuaren bitartez.

Ziurtagiri horretan, energia eraginkortasunaren etiketa baten bitartez, Energia eraginkortasun klase bat esleituko zaio eraikin bakoitzari; eraikinik eraginkorrenek A klaseko ziurtagiria jasoko dute eta eraginkortasun txikienekoek, berriz, G klasekoa.

Energia eraginkortasunaren eta Ingurumenaren Kalitatearen Udal Ordenantzaren (Eko-Ordenantza, Eraikingintzaren Kode Teknikoak jasotakoa gainditzen du, eraikin publikoei B klaseko energia kalifikazioa eskatuta) exijentziak maximizatzea proposatzen da, etxebizitza publiko berrien energia eskaria murrizteko; eskari horri errendimendu handiko sistemekin eta energia-iturri berriztagarriekin erantzungo zaio eta, era horretan, A klaseko energia kalifikazioa lortuko da.

Laster onartuko da birgaitzen diren eraikinetarako energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarrizko prozedura.

Neurri hori aplikatuta, kalifikazio hori duten etxebizitzen berogailuagatiko energia kontsumoaren % 25 lortu ahal izango da, C klasetik A klasera igarotzearen ondoriozko energia eraginkortasunaren handitzeari dagokiona.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Etxegintza<br>PARVISA<br>Udala-Proiektuak eta Obrak<br>Eusko Jaurlaritza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **6.3.3** | **Etxebizitzak berritzerakoan, energia eraginkortasun handiko irizpideak kontuan hartzea, EKTak definitutako gutxienekoak baino murriztaileagoak.** | | |
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Etxebizitzak eraberritzeko eraginkortasun handiko irizpideak kontuan hartzea proposatzen da; ekintza horrekin EKTak ezarritako mugak gainditzen dituzten itxituren kalitateak lortu nahi dira. Kanpoko itxituren isolamendua hobetuta, aire-iragazketak minimizatuta (Fatxada: 6-8 cm; teilatuak eta kanpoko lurzoruak: 9-12 cm) eta beira bikoitzak jarrita (4-12-4).<br><br>Jarduera horrekin, Eraikuntzako Kode Teknikoa baino lehenagoko etxebizitza ereduarekin alderatuta, berogailu eskaria % 47 murriztea lor daiteke. Bizitegien 04 eranskinean definitzen dira jarduera hori planteatzen den eskari eszenatokiak, etxebizitza tipologiaren arabera. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Herritarrak<br>Sustatzaileak<br>Eraikitzaileak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.3.4</td><td colspan="3">Etxebizitzen birgaitze partzialetan energia eraginkortasunezko irizpideak sartzea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Birgaitu beharreko etxebizitzen proposamen berrietan eta hirian eraberritu beharreko espazio berrietan energia eraginkortasun handiko irizpideak sartzea. Zentzu horretan, bi jarduera proposatzen dira:<br><br>* Aurreikusitako birgaitze-proiektuak aztertu eta irizpideen gida bat eta barne-kontrolerako protokoloak (proiektukoak eta obrakoak) idatziko dituen batzordea sortzea, eraikinen birgaitzeetan B klaseko energia-ziurtagiria lortu ahal izateko.<br>* Etxebizitzak eraberritzeko plan berezietan eta partzialetan energiari dagozkion irizpide iraunkorrak jasotzea, honako jardueren bitartez:<br><br>a) Hiri-garapenean aplikatu beharreko hirigintzako energia irizpide iraunkorrak definitzea.<br><br>b) Kontzeptu horiek tramitazioan dauden eta etorkizunean tramitatuko diren plan berezi eta partzialetan integratzeko aukerak aztertzea.<br><br>Laster onartuko da birgaitzen diren eraikinetarako energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarrizko prozedura.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Ertaina (2017-2018)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">Kosturik gabe</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Udala- Etxegintza<br>PARVISA<br>Empresas Rehabilitadoras<br>Herritarrak<br>Bizilagunen elkarteak<br>Administradores de fincas</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.3.5 | Isolatutako bizitegi-eremuetan bero-sistema zentralizatuak jartzea, District Heating sistemaren bitartez. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Berogailu eta etxeko ur beroaren eskariaren zati bati erantzuteko beroa sortzeko zentrala erabiltzea proposatzen da; zentral horrek eraikinetako azpi-zentraletara banatuko du eta han tratatuko da, bero-trukagailu bidez eraikinari beroa hornitzeko ezaugarri egokiak har ditzan.<br><br>Sistema mota honen errendimendua eraikinetako sistema zentralizatuena baino % 20 handiagoa izan daiteke eta etxebizitzetako sistema indibidualena baino % 30-40 handiagoa.<br><br>District Heating sistemak erregai mota ezberdinak erabil ditzake; egokiena erregai berriztagarriak (Biomasa) erabiltzea litzateke, gas naturalaren laguntzarekin, eguzki-energia fotovoltaikoarekin baterako sorkuntzarako eta laguntzarako motorrarekin. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Proiektuak eta Obrak<br>Herritarrak<br>Bizilagunen elkarteak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.6 | **Herritarrei zuzendutako ingurumeneko informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatzea, energia kontsumo arduratsuarekin lotuta** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Herritarrentzako aholkularitza eta sentsibilizazio programak egitea, energia kontsumo arduratsuaren gaiaren inguruan sentsibilizatzeko, ohiturak aldatzearekin, klima aldaketa murrizten lagun dezaten.

Donostiako Agenda 21 programari eskainitako webguneko orrialdearen barruan etengabeko informazio-puntua sortzea proposatzen da; baita energia eraginkortasuna hobetzera bideratutako berariazko kanpainak garatzea ere. Kanpaina horiek, Eraginkortasun Energetikorako Zerbitzuaren egituraren barruan, energia eraginkortasuna handitzean zentratuko diren ondorengo alderdiak landuko dituzte, besteak beste:

* Etxetresna elektrikoak

* Etxeko ur beroa

* Berotzeko sistemak

* Argiztatzea

Programa horien helburua da jokabide aldaketei garrantzia berezia ematea, energiaren erabilera arrazionalagoaren alde egiteko. Horregatik, herritarrei beharrezko informazioa edo mekanismoak emango zaizkie, beraien jokabideen ondoriozko ingurumenarekiko eragina zein den jakin dezaten eta, kontzientziatu eta jokabidea aldatu aurretik, hobetzeko aukerak zeintzuk diren ezagut dezaten.

Merkatariei eta biztanleriaren eragile aktiboei zuzendutako informazio programak eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzea planteatzen da. Programa horiekin lortu nahi dena da klimatizazio-sistemak ondo erregulatuta lor daitekeen aurrezpenari buruz kontzientziatzea.

Neurri hori, era berean, ildo estrategiko honetan bertan jasotako beste neurri batzuek bultzatzeko elementua ere bada.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna<br>Cristina Enea Fundazioa | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.7 | **Bizitegi-sektorean energia eraginkortasunaren hobekuntza sustatzea (leihoak, lanparak, etxetresna elektrikoak, galdarak eta instalazio elektrikoak ordeztea)** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Agenda 21 programaren eta Cristina Enea Fundazioaren webguneen bitartez eta, Ingurumen Baliabideen Zentroan, zuzeneko eta telefono bidezko arretaren bitartez, informazioa ematea, energia eraginkortasunaren arloko aholkularitza eskaintzeko.

Ekimen partikularrei etxebizitzen energia eraginkortasunari eta kontsumo iraunkorrari buruzko aholkularitza eta orientazio juridikoa eskaintzea.

Energia aurrezpenaren, eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien instalazioen arloan inbertsioak egiteko dauden laguntza eta diru-laguntzei buruzko informazioa aldizka emateko komunikazio-kanal bat edukitzea.

EEE (Energiaren Euskal Erakundea) eta IDAE (Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutua) erakundeek etxeetan energiari dagozkion hobekuntzetarako ematen dituzten Laguntzei buruzko informazioa ematea eta horiek mantentzen eta hobetzen saiatzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.8 | Eskola arloan energia kontsumo arduratsuarekin lotutako ingurumen-hezkuntzako kanpainak garatzea. |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Eskola arloan – lehen eta bigarren hezkuntzak barne – ingurumen-hezkuntzako kanpainak garatzea; horien helburua izango da energiaren erabilerarekin lotutako jokaerak sustatzea (beharrezkoak ez diren argiak itzaltzea, etxetresna elektrikoen eta argiztatze-sistemen eko-eraginkortasuneko ezaugarriak ezagutzea, etab.)

Horretarako, bereziki kontuan hartuko dira Eskolako Agenda 21 bezalako programak eta Kontsumo Iraunkorreko Ikasgela bezalako ekimenen jarraipena, estrategia pedagogiko berriak sartuz.

Eskolako Agenda 21 ekimenean, aztertu beharreko gaia aukeratzen da urtero. Gai horien artean daude energia aurrezpena eta erabilera eraginkorra.

Gaia ez dagoenean zuzenean energia eta energia aurrezpenarekin lotuta, bi gaiok zeharka lantzea proposatzen da, ikasleak sentsibilizatzeko eta alferrikako kontsumoak murrizteko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Cristina Enea Fundazioa | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Sentsibilizazioa eta kontsumo iraunkorra | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK |

| 6.3.9 | Energia berriztagarriei eta energia eraginkortasunari buruzko Unibertsitateko Gradu-ondokoa edo bestelako prestakuntza jarduerak indartzea. |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Energia berriztagarrien, energia eraginkortasunaren eta arkitekturako diseinuaren iraunkortasunaren eta eraikuntza iraunkorraren arloetan prestakuntza aurreratua eskaintzen duten gradu-ondoko ikasketa ofizialak indartzea proposatzen da.

Neurri horrekin, modu eraginkorragoan eta errespetuzkoagoan diseinatzeko eta eraikitzeko gai diren eta girotzeko teknika natural eta artifizialak aplikatuko dituzten profesionalak eduki nahi dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | EHU-Arkitektura<br>Cristina Enea Fundazioa | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.3.10</td><td colspan="3">Zerbitzuen sektorean berogailuen galdarak eta etxeko ur beroaren berriztatzea sustatzea, eraginkortasun altuko galdarek jarriz</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Berogailu eta etxeko ur beroaren sistemen eraginkortasuna hobetzeko proposatzen da neurri hau.<br><br>Galdarak aldatzea proposatzen da, egun daudenek hamar urte baino gehiago dituztelako edo berogailurako ur beroa sortzerakoan duen errendimendua baxua delako.<br><br>Eraginkortasunaren gehikuntza errekuntza kearen kondentsazioko beroa aprobetxatzean oinarritzen.<br><br>Teknologia honek errekuntza gasetan sortzen de ur lurruna aprobetxatzen du eta berriz likido egoerara bueltatzen du. Galdara klasikoen kasuan, atmosfera  motatakoa, bero sorraren zati handi bat kebidetik husten da eta honek errekuntza produktuen tenperatura oso altua suposatzen du, 150ºC ingurukoa. Kondentsazio galdararen erabilerak bero sorraren zati handi bat berreskuratzeko aukera ematen du, gas kutsagarrien isuriak mugatuz. Egungo kondentsazio edo tenperatura baxuko galdara bat %30arteko etekin altuagoa izatera iritsi daiteke, galdara konbentzional batekin konparatuz.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Ertaina (2017-2018)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| **6.3.11** | **Komertzio barruetako argiztapenaren berritzea sustatzea, eraginkortasun handiagoko teknologiak jar daitezen.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Barruko argiztapena berritzeko ondorengo jarduerak proposatzen dira:

* Zonakatze egokirik ez duten argiztapen-lineen zonakatzea eta sektorizatzea hobetzea. Batez ere, komertzio ertain edo handietan eta supermerkatu txikietan.

* Argiztatze naturaleko argi-mailak aztertzea eta argiztatze artifiziala birdefinitzea. Argiztatze eskaria murriztu egin daiteke, argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatuz gero. Horretarako ezaugarri egokiak eta argiztatze eskari handiak dituzten eraikinetarako planteatzen da neurri hori; eraikinok leku eguzkitsuetan egon beharko dira eguneko zatirik handienean, itzal azalera handirik sortzen ez duen inguruko elementurik gabe.

Funtsean, erakusleihodun eta leihate handidun komertzioetarako planteatzen da. Solairu bakarreko eraikin isolatuetan dauden komertzioetarako, berriz, sabai-leihoak edo eguzki-hodiak jartzea planteatzen da.

* Fluoreszenteetako argiak, lanparak eta erreaktantzia mekanikoaren ordez errendimendu handieneko beste elementu batzuk jartzea. Neurri hori era guztietako komertzioei aplikatzeko modukoa da; hala ere, arreta berezia eskainiko zaie argi-foku, lanpara halogeno eta fluoreszente asko dituztenei.

* Erakusleihoak eta leihate handiak dituzten komertzioetan argiztapenaren pizte automatikorako erregulazioa instalatzea, argi naturala aprobetxatzeko.

* A erako ziurtagiriak edo zero isurketa balantzedun eraikinak lortzea eraikuntza berrietan edo zerbitzu jardueretara bideratutako birgaitze-lanetan.

Eraikinen energia eraginkortasunaren Ziurtagiria 2002/91/CE Zuzentarauaren ondoriozko exijentzia bat da; zuzentarau hori partzialki sartzen da Espainiako ordenamendu juridikoan, Eraikuntza berriko eraikinen energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarrizko prozedura onesten duen 47/2007 Errege Dekretuaren bitartez.

Ziurtagiri horretan, energia eraginkortasunaren etiketa baten bitartez, Energia eraginkortasunaren klase bat esleituko zaio eraikin bakoitzari; eraikinik eraginkorrenek A klaseko ziurtagiria jasoko dute eta eraginkortasun txikienekoek, berriz, G klasekoa.

Neurri horrekin, eraikuntza berriko eraikinen erdietan A klaseko energia kalifikazioa lortzea proposatzen da, bai proiekturako, bai amaitutako eraikinerako; horrela, B energia-ziurtagiria duen eraikin batekin alderatuta, % 20-30 arteko aurrezpen handiagoa lor daitekeela estimatzen da.

| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
|---|---|---|---|
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.3.12</td><td colspan="3">A erako ziurtagiriak edo zero isurketa balantzedun eraikinak lortzea eraikuntza berrietan edo zerbitzu jarduueretara bideratutako birgaitze-lanetan.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Eraikinen energia eraginkortasunaren Ziurtagiria 2002/91/CE Zuzentarauaren ondoriozko exijentzia bat da; zuzentarau hori partzialki sartzen da Espainiako ordenamendu juridikoan, Eraikuntza berriko eraikinen energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko oinarrizko prozedura onesten duen 47/2007 Errege Dekretuaren bitartez.<br><br>Ziurtagiri horretan, energia eraginkortasunaren etiketa baten bitartez, Energia eraginkortasunaren Klase bat esleituko zaio eraikin bakoitzari; eraikinik eraginkorrenek A Klaseko ziurtagiria jasoko dute eta eraginkortasun txikienekoek, berriz, G Klasekoa.<br><br>Neurri horrekin, eraikuntza berriko eraikinen erdietan A klaseko energia kalifikazioa lortzea proposatzen da, bai proiekturako, bai amaitutako eraikinerako; horrela, B energia-ziurtagiria duen eraikin batekin alderatuta, % 20-30 arteko aurrezpen handiagoa lor daitekeela estimatzen da.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Zerbitzuen sektorea</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.3.13 | Mikro-sorkuntzako plantak instalatzea (ahal dela, biomasarekin) ostalaritzako eta hirugarren adinekoen egoitzen sektoreetan, beti ere, biomasa hori hondakin berdetik baldin badator (inausketen hondakinak, etab.) eta baso-hondakinak erabiltzea saihestuz. |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

2002ko uztailaren 29an, Europar Batzordeak energiaren barne-merkatuko bero erabilgarriaren eskariaren oinarriaren gaineko baterako sorkuntza sustatzeari buruzko zuzentarau-proposamena aurkeztu zuen. 2004ko otsailean argitaratu zen, azkenean, testua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean “Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2004ko otsailaren 11ko 2004/8/CE Zuzentaraua” izenarekin.

Zuzentarau horren helburua da bero erabilgarriaren eskarian eta lehen mailako energiaren aurrezpenean oinarritutako bero eta argindar eraginkortasun handiko baterako sorkuntza sustatzeko eta garatzeko esparru bat sortzea.

Baterako sorkuntza sustatzeko eta garatzeko proposamenarekin jarraituz, zerbitzuen sektorean, hotel-taldeetan eta hirugarren adinekoentzako egoitzetan baterako sorkuntza ezartzea planteatzen da.

Hain zuzen ere, 34 establezimendutan jardutea proposatzen da, tamaina ertaineko hoteletan eta egoitza geriatrikoetan dauden sistemarik ohikoenak 35,5 kWt eta 16 kWe-koak direla kontuan hartuta.

Ekintza hori biomasaren jatorriaren baldintzapean dago eta horren aldeko apustua egingo da, baldin eta biomasa hori hondakin berdetik datorrena bada.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea<br>Gipuzkoako Foru Aldundia | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.14 | Energia Berriztagarrien, Energia Eraginkortasunaren eta Smart Energy Klusterra dinamizatzea eta energia eraginkortasunaren arloko prestakuntza programak garatzea sektoreko enpresa eta profesionalentzako |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunaren sektoreko hiriko enpresekin batzarrak egitea, sektoreko profesionalek energia eraginkortasunaren gaian dituzten prestakuntza beharrak atzemateko helburuz. Behin beharrak atzeman ondoren, profesionalen elkarteei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei zuzendutako prestakuntza-jardunaldiak antolatzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.15 | **Energia kudeatzeko IKT teknologian oinarritutako sistemak sartzea, energia kontsumoa ezagutzeko, erabileran aurrezteko neurriak aplikatzeko eta horien eragina ebaluatzeko aukera emango dutenak.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Hornikuntzen eta energia kontsumoen kudeaketan oinarritutako aplikazio informatikoko sistemak sartzea, enpresa merkaturatzaileen fakturazio-datuetatik eta, irakurketak egiten diren edo monitorizazio-sistemak dauden kasuetan, kontsumo-datu errealetatik abiatuta, eta energiaren kudeaketa eraginkorreko sistemak ezartzea.

Neurri hori aplikatzearekin lortu nahi dena da bulego, komertzio eta jatetxeetan argindar kontsumoaren % 10eko aurrezpena eta berogailu eta aire girotuan % 5ekoa, kontsumoak kontrolatuz eta erregulazio- eta kontrol sistemak eta jardunbide egokiak optimizatuz.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea<br>Udala- Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.16 | **Zerbitzuen sektorean aurrezpenari eta energia eraginkortasunari dagokionez lor daitezkeen hobekuntzei buruzko aholkularitza eskaintzea eta erantzunkidetasuna bilatzea.** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Hirugarren sektorearen erantzunkidetasuna sustatzeko programa bat abiaraztea proposatzen da, haien energia egoeraren diagnostiko erraz bat egiten lagunduz eta, Udalaren laguntzarekin, hobekuntzarako ekintzak eta horien jarraipena eginez.

Programa hori bulego, hotel, komertzio, biltegi eta mantenu-enpresen jabeei zuzenduta legoke.

Kolektibo horiek energia aurrezpeneko sistemak ezartzearen logikarekin bat egitea lortu nahi da, pixkanaka, haien negozioetan eta eguneroko zerbitzuetan sar ditzaten.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea<br>Udala- Donostia Sustapena-Energia Berriztagarrien Klusterra | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |

<table>
<tr><td>6.3.17</td><td colspan="3">Hirugarren sektoreko energia aurrezpenerako eta eraginkortasunerako neurriak jasotzen dituzten hainbat gida erraz prestatzea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoek energia aurrezpenarekin eta eraginkortasunarekin lotutako ekimenak gauzatzeko euskarri gisa balioko duten hainbat gida erraz bat prestatzea. 2010ean Donostiako komertzio eta bestelako jarduera ekonomikoen % 100gana iritsi eta informazioa ematea planteatzen da.<br><br>Hain zuzen ere, gida horietan ondorengo alderdiei buruzko informazioa jasotzea proposatzen da, besteak beste:<br><br>* Energia aurrezpenaren, eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien arloan nahitaez bete beharreko araudiaren egoerari buruzko informazioa.<br>* Eskuragarri dauden diru-laguntzei, laguntzei eta finantzazioko programei buruzko informazioa.<br>* Energiari dagozkion jardunbide egokiei eta horien emaitzei buruzko informazioa.<br>* Energia aurrezpenean eta eraginkortasunean hobekuntzak lortzeko lagungarri diren aplikatutako teknologia berriei buruzko informazio</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Ekonomia-Jardueren ingurumen kudeaketa</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA</td></tr>
</table>

| 6.3.18 | **District Heating sistema bidezko bero-sistema zentralizatuak jartzea, bero-eroaletzat ura erabiltzen duten berogailu-sistemak eta etxeko ur beroaren sistemak dituzten eraikuntzetan.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Berogailu eta etxeko ur beroaren eskariaren zati bati erantzuteko beroa sortzeko zentrala erabiltzea proposatzen da; zentral horrek eraikinetako azpi-zentraletara banatuko du eta han tratatuko da, bero-trukagailu bidez –galdararen ordez – eraikinari beroa hornitzeko ezaugarri egokiak har ditzan.<br><br>Sistema mota honek eraikinetako sistema zentralizatuek baino % 20 errendimendu handiagoak izan ditzakete eta etxebizitzetako sistema indibidualek baino % 30-40 handiagoak.<br><br>District Heating sistemak erregai mota ezberdinak erabil ditzake; egokiena erregai berriztagarriak erabiltzea izango litzateke edo, horrelakorik ezean, gas naturala.<br><br>Neurri honek energia eraginkortasunaren hobekuntzaren ondoriozko aurrezpena soilik jasotzen du; etorkizunean Energia Berriztagarriren bat sartuko balitz bakarrik hartu beharko litzateke kontuan ekoizpen berriztagarria. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea<br>Udala- Donostia Sustapena-Energia Berriztagarrien Klusterra<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.3.19 | **Amara eta Bidebieta auzoetako birgaitze energetikoaren azterketa pilotua eta haren zabalkundea** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Amara eta Bidebieta auzoetan gauzatutako Birgaitze energetikoaren Azterketa “Pilotuaren” edukien eta ondorioen zabalkundea egitea, inplikatutako sektoreei eta, oro har, udal webgunearen bitartez, herritarrei informazioa emanez. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.3.20</td><td colspan="3">Etxebizitzak birgaitzeko pizgarri fiskalak ematea, EIOZ eta OHZ zergetan hobariak eskainiz.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Etxebizitzen birmoldaketa-lanetan energia eraginkortasunaren hobekuntza bultzatzeko helburuz, eraikinak birgaitzeko hobariak aurreikusten dira, OHZ eta EIOZ zergak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan abantaila fiskalak sartuz.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">45.000-80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Ogasuna</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>6.3.21</td><td colspan="3">Energia Eraginkortasunaren eta Ingurumenaren Kalitatearen Udal Ordenantza aldatzea</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Energia Eraginkortasunaren eta Ingurumenaren Kalitatearen Udal Ordenantza (Eko-Ord) aldatzea, etxebizitza berrien zein birgaitze integrala egiten zaien eraikinen kalitate energetikoa bermatuko duen maila handiko kalifikazio-ziurtagiria sustatzeko, eta ordenantza hori Europar Batasunaren 31/2010CE Zuzentarauari egokitzea.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">Kosturik gabe</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Ingurumena</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.3.22 | **Pobrezia energetikoari aurre egitea eta fenomeno horren eragina arintzeko ekimenak abian jartzea** |
|---|---|
| **Programa** | 6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan |

**Deskribapena:**

Pobrezia energetikoa jasaten dute oinarrizko energia beharrak bete ezin dituzten etxeetan. Fenomeno horren eragile nagusiak dira etxebizitzen egokitzapen termikoa, etxeetako baliabide ekonomikoen urritasuna eta energiaren tarifa handiak.

Etxeetako diru-sarrerak jaitsi egin dira krisiaren ondorioz, energiaren prezioak gora egin du eta klima aldaketak ondorio negatiboak dakartza; horiexek dira fenomeno hori geroago eta gehiago hedatu izana azaltzen duten faktoreetako batzuk.

Pobrezia energetikoari aurre egiteko beharrezkoa da pobreziaren aurkako politikek, ingurumenari dagozkien politikek eta etxebizitzari dagozkienek bat egitea eta lotuta dauden eragile anitzak ondo koordinatzea.

Ekintza hori ezartzeak, gutxienez, ondorengo jarduerak egitea dakar:

* Donostian dagoen pobrezia energetikoa identifikatzea: fenomeno horren irismena eta ezaugarriak, kolektibo kalteberak, arrazoi nagusiak, etab.

* Pobrezia energetikoaren aurkako ekintzan sartuta dauden eragileak identifikatzea eta lan-organo bat eratzea (hainbat udal zerbitzu, GKE, Auzo-elkarte, etab.)

* Pobrezia energetikoari aurre egiteko dagoeneko abian dauden neurri unibertsalak eta selektiboak identifikatzea eta neurri horien emaitzen ebaluazioa egitea.

* Etxebizitzetako energia eraginkortasuna, energiaren prezioa zehaztea, familien errenta baxuak, aurrezteko gailuak, energia aurrezteko jardunbide egokiak eta beste hainbat esparrutako neurri osagarri berriak identifikatzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Osasuna | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |

<table>
<tr><td>6.3.23</td><td colspan="3">Bizitegi-sektorean eta zerbitzuenean smart ekimenak garatzea, Smart Kalea ekimena eredutzat hartuta</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">2014. urtean zehar Smart Kalea ekimenean garatutako proiektua eredutzat hartuta, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan eta bizitegi-sektorean energia eraginkortasuna handitzera bideratutako neurriak ezartzea proposatzen da.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Donostia Sustapena</td><td>Beste Arduradunak</td><td>Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna</td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>6.3.24</td><td colspan="3">i-Sare mikro-sarearen funtzionamenduaren eta emaitza energetikoen jarraipena egitea</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.3 Energia eraginkortasuna sustatzea bizitegi-sektorean, zerbitzuen sektorean eta jarduera ekonomikoetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">i-Sare nazioarteko eremuan sare elektrikoen inguruko irtenbideak garatzeko eta sektore horretako enpresak indartzeko funtsezkoa izango den azpiegitura esperimentala da. Mikro-sare adimentsuak sortutako energia une bakoitzean eskatzen denari ahalik eta gehien egokitu ahal izateko modu koordinatuan kudeatutako ekipoak konbinatzen dituzten sistema elektrikoak dira, betiere, ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatzen dutelarik.<br><br>Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektua da eta Donostiako 27. Industrialdean kokatuta dago, ENERTIC Eraikinean; i-Sare Microgrid Gipuzkoa azpiegiturak argindarra sortzeko eta biltegiratzeko teknologia anitzen eraginkortasuna eta bideragarritasuna garatzeko eta esperimentatzeko saiakuntza bankutzat balioko du.<br><br>Instalazioa aitzindaria izanik, berebiziko garrantzia izango du haren funtzionamenduaren eta lortutako emaitzen jarraipena egiteak.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala-Donostia Sustapena</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.4.1 | Udalak erositako energiaren % 100 iturri berriztagarrietakoa izatea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Energia hornitzeko zerbitzuaren kontratazioan, ingurumen-irizpide gisa sartuko da energiaren % 100 energia-iturri berriztagarrietatik etortzea. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Kontratazio eta erosketak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.2 | Horretarako aukera ematen duten udal eraikin guztietan, pixkanaka, eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea, eta dauden instalazioen jarraipena egitea, instalazio horien funtzionamendu egokia bermatzeko | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| 100 m2-tik gorako azalera duten ekipamendu publikoen % 60an, gutxienez, eguzki-energia fotovoltaikoa jartzea, izan ere, logikoa den bezala, buxaduren, eraikinaren orientazioen eta teilatuen inklinazioen ondorioz, ezin izango da azalera osoa aprobetxatu; gainera, horietako batzuetan, kontuan hartu behar da plaka termikoak jartzeko proposamena, hala nola, ospitaleen kasuan.<br><br>Ekipamenduen aukeraketa egiteko kaptatze-ahalmenaren bideragarritasuna hartuko da oinarritzat eta Donostiarako Iraunkortasun Estrategian ateratako sateliteko argazkiekin egindako azterketa abiapuntutzat.<br><br>Instalazio horien jarraipena egingo da, funtzionamendu egokia bermatzeko. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena<br>Udala-Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala-Kultur Patronatua<br>Udala-Ingurumena<br>Udala- Proiektu eta Obrak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.3 | Udalerrian energia berriztagarria sortzeko sistemak ezartzeko aukera aztertzea eta, hala badagokio, bultzatzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udalerrian energia berriztagarriak instalatzeko aukerak aztertzea proposatzen da, energia sortzeko iturri berriztagarri mota anitzak kontuan hartuta. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.4 | Eguzki-sistema termikoen funtzionamendu egokia eta eraginkorra bermatzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udal eraikinetan dauden eguzki-instalazioen mantentze- eta funtzionamendu-egoera egiaztatzea, mantenu-kontratuak aztertzea eta kontratu horietan sistemaren eguzki-ekoizpen erreala urtero aztertu beharra sartzea, proiektuan aurreikusitakoarekin alderatuz. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

<table>
<tr><td>6.4.5</td><td colspan="3">Etxeko ur beroaren kontsumo handiena duten udal eraikinetan eguzki-sistema termikoa instalatzen jarraitzea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Eraikuntza berriko udal eraikinetan eta Etxeko Ur Beroaren kontsumo handia dutenetan ur beroaren eguzki-sistema termikoak ezartzea eta horrekin betetzea eskariaren % 40, gutxienez (Eko-Ordenantzaren eskakizuna).<br><br>Teilatu-azaleraren 20.000 m2-ra iritsi beharko litzatekeela uste da, hots, eraginkortasun handiko 10.500 m2 eguzki-kolektore izatera.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Laburra (2015-2016)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Kiroletako Patronatua<br>Udala- Hiri Mantenimendua eta Zerbitzuak<br>Udala- Etxegintza</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>6.4.6</td><td colspan="3">Eraikuntza berriko eraikin publikoetan beroa sortzeko klimatizazio geotermikoko sistemak sartzea.</td></tr>
<tr><td>Programa</td><td colspan="3">6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskribapena:</td></tr>
<tr><td colspan="4">Airea girotzeko kontsumo handia daukaten eraikin berri edo birgaitze integrala egingo den eraikin bakoitzean, arau gisa, bero-trukagailu geotermikoko sistemak – uraren edo airearen bidez – instalatzeko aukera aztertzea planteatzen da; sistema horiek izango lirateke airea girotzeko instalazioaren oinarria eta sistema laguntzaileak izango lituzkete. Horiek aplikatu ezin badira, nahitaezkotzat joko da Energia Berriztagarrietan oinarritutako bestelako sistemak ezartzea, hala nola, airezko eguzki-kolektoreak edo airea girotzeko huts-hodiak.<br><br>70 kWko batez besteko potentziadun 9 unitate instalatzea planteatzen da, hau da, guztira, 630 kW.</td></tr>
<tr><td>Epea</td><td>Luzea (2019-2022)</td><td>Lehentasuna</td><td>Ertaina</td></tr>
<tr><td>Kostua</td><td colspan="3">> 80.000 €</td></tr>
<tr><td>Arduradun nagusia</td><td>Udala- Proiektuak eta Obrak</td><td>Beste Arduradunak</td><td></td></tr>
<tr><td>Gaia</td><td>Energia</td><td>Aalborg-eko Konpromisoak</td><td>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</td></tr>
</table>

| 6.4.7 | **Biomasa bidez beroa sortzeko sistemen ezarpena handitzea bizitegi-sektorean, betiere, biomasa hondakin berdeetatik baldin badator (inausketen hondakinak, etab.), basoetatik datozen hondakinak erabiltzea saihestuz** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Barrutietan edo etxebizitza-multzoetan, San Marko Mankomunitateko inausketetako hondakinetatik eta hiriko egur hondakinetatik datorren biomasaz elikatzen diren berogailu eta etxeko ur bero instalazioak garatzea sustapen berrietan eta dagoeneko dauden etxebizitzetan. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Herritarrak<br>Bizilagunen elkarteak<br>Jabe pribatuak<br>Enpresa eraikitzaileak<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak<br>Udala- Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.8 | **Biogasa aprobetxatzeko Biometanizazioko Planta bat eraikitzea, hautatutako Hiri-hondakin Solido organikoak, lohiak eta abeltzaintzako hondakinak termikoki aprobetxatzeko.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Biogasa ekoizteko planta bat jartzea; biogas hori Gipuzkoako Mankomunitateen hautatutako HOS organikoaz eta abeltzaintzako hondakinez ekoiztuko litzateke. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | GHK | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| | |
|---|---|
| **6.4.9** | **Tenperatura txikiko eguzki-energia kaptatzeko eta biltegiratzeko sistemak ezartzea sustapen berrietako etxeko ur beroaren eskariaren % 40 estaltzeko (Eko-Ordenantza), eta dagoeneko dauden etxebizitzetan ere sistema horren presentzia areagotzea.** |
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea |

**Deskribapena:**

Etxeko Ur Beroari dagokion energia eguzki-energiaren laguntzarekin aurrezteko, honakoa planteatzen da: eskariaren % 40 betetzea ahalbidetuko duen kaptatze-sistema bat jartzea. (Eko-Ordenantzaren eskakizuna)

Eskari hori betetzeko beharrezkoa izango da pertsona bakoitzeko 0,8 m2-ko kaptatze-azalera ezartzea, nagusiki hegoalderako orientazioarekin (heg.+- 60 º, ahal dela 45 º) eta 53 º-ko inklinazioarekin, ostertzean oztoporik gabe. Nolanahi ere, Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren eta Garapen-plangintzaren parametroak eta horri dagokionez Eko-Ordenantzak ezarritakoa bete beharko da (integrazioa eta gainezarpena, ahal dela, inklinaziodun teilatuetan).

Neurri hori eraikuntza berriko etxebizitzatan eta birgaitze-obratan aplikatzea planteatzen da, dauden etxebizitzen % 50ean, 13.000 m2 instalatzera iritsi arte.

Birgaitze-obratan bideragarritasun teknikoaren eta ekonomikoaren arabera ezarriko dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Herritarrak<br>Bizilagunen elkarteak<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak<br>Eusko Jaurlaritza- Etxebizitza<br>Udala- Etxegintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.10 | Autopista ertzetan, zerbitzu-bideetan eta espazio insterstizialetan eguzki-panel fotovoltaikoak jartzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Eguzki-sistema fotovoltaikoak instalatzea, besteak beste, trazaduraren ondorioz sortzen diren bide-azpiegituretako espazioetan, hala nola, biribilguneetan, bide-korapiloetan, etab. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala<br>Udala-Donostia Sustapena<br>Energia Zerbitzuetako Enpresak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.11 | Eguzki-panel fotovoltaikoak jartzea azalera handiko eraikinen teilatuetan (industrialdeak, merkataritza-guneak…) | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Energia Zerbitzuetako Enpresekin industrietako, merkataritza-guneetako eta bulego-eraikinetako teilatuak alokatzeko hitzarmenak eta kontratuak sustatzea, eguzki-sistema fotovoltaikoak instalatzeko. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Jabe pribatuak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.12 | Aparkalekuetan eguzki-plaka fotovoltaikoak jartzea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Merkataritza-guneetako, udal eraikinetako, industria-guneetako eta ospitaleetako aparkalekuetan pergola erako sistema fotovoltaikoak jartzea proposatzen da, eguzki/itzal arrazoiengatik bideragarriak direnak aukeratuz. Azalera bideragarriaren % 70ean ezartzea aurreikusten da. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Jabe pribatuak<br>Emakidunak<br>Udala- Proiektuak eta Obrak<br>Eusko Jaurlaritza- Osasuna eta industria | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.13 | Tenperatura baxuko eguzki-energia kaptatzeko eta biltegiratzeko sistemak jartzea, gutxienez, Eko-Ordenantzak (% 40) eta EKTak zerbitzuen sektoreko etxeko ur bero eskariari dagokionez ezartzen dituzten eskakizunak betetzeko. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Etxeko Ur Beroari dagokion energia eguzki-energiaren laguntzarekin aurrezteko, honakoa planteatzen da: eskariaren % 40 betetzea ahalbidetuko duen kaptatze-sistema bat jartzea. (Eko-Ordenantzaren eskakizuna).<br><br>Eskari hori betetzeko beharrezkoa izango da pertsona bakoitzeko 0,8 m2-ko kaptatze-azalera ezartzea, nagusiki hegoalderako orientazioarekin (heg.+- 60 º) eta 53 º-ko inklinazioarekin, ostertzean (ahal dela 45 º) oztoporik gabe. Nolanahi ere, Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren eta Garapen-plangintzaren parametroak eta horri dagokionez Eko-Ordenantzak ezarritakoa bete beharko da (integrazioa eta gainezarpena, ahal dela, inklinaziodun teilatuetan).<br><br>10.000 arte instalatzea, EUB kontsumo handiena duten eraikinetan, hala nola: ostalaritza eta jatetxeak, egoitzak, kirol-gune pribatuak eta ur-terapiako guneak eta beste. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Zerbitzuen sektorea | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.14 | **Teknologia geotermikoaren laguntza izango duten eraginkortasun handiko klimatizazio-sistemak jartzea.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Klimatizazio-kontsumo handia (bero- eta hotz-sistemak) eta kanpoaldean sistema geotermikoaren bero-trukagailuak jartzeko espazioa duten eraikinetan energia geotermikoaren aprobetxamenduan oinarritutako eraginkortasun handiko sistemen ezarpena sustatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Donostia Sustapena | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.15 | **Eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzeko teilatuak alokatzeko agiri tekniko-administratiboa idaztea.** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udal ekipamenduen teilatuak alokatzeko agiria idaztea, enpresa sustatzaileek sarera lotutako eguzki-instalazio fotovoltaikoak instala ditzaten.<br><br>Ospitaleen eta Udalarenak ez diren eraikin publikoen kasuan, eraikin horietan ere alokairurako lehiaketa publikoak ireki ditzaten kontaktuak eta negoziazioak bultzatzea. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala-Ogasuna | **Beste Arduradunak** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna |
| **Gaia** | Energia | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 6.4.16 | Hirigintza-plangintzan beroa sortzeko unitate zentralizatuen instalazioa aurreikustea. | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 6.4 Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean, barrutiko berogailu- eta EUB-unitate zentralen edo inausketa-hondakinak eta hiriko zurak berrerabiltzetik sortutako biomasaz elikatutako unitateen instalazioa aurreikustea, hiri-inguruneetako hiri-garapen berrietarako eta birgaitzeetarako. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Hirigintza | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Lurraldea eta antolamendua | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA |



## 7. ILDO ESTRATEGIKOA

UDALERRIKO BIODIBERTSITATEA ETA HONEK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK BABESTEA, KONTSERBATZEA ETA ELKARBANATZEA

| 7.1.1 | **Udalerriko biodibertsitatea, erlazionatutako mehatxuak eta arlo honetan udalak garatutako jarduerak ezagutzera ematea bide desberdinen bidez** |
|---|---|
| **Programa** | 7.1. Udalerriko biodibertsitatea ezagutzera ematea eta bere mantentze eta zaintzan sentsibilizatzea |

**Deskribapena:**

Herritarrek biodibertsitatearen kontserbazioan paper garrantzitsua daukate, horregatik interesgarria da pertsonek dibertsitate biologikoak daukan balioan eta hau kontserbatzeko eta modu iraunkorrean erabiltzeko eman beharreko pausuetan kontzientzia izatea. Donostiako udala biodibertsitatearentzako garrantzitsuak diren udalerriko gune desberdinen kontserbazioan lan egiten ari dira (Ulia, Añarbe, Urgull...) eta honen berri emanten du bide desberdinez bidez; triptikoak, web orria, ikastetxeekin programak eginez... Hala ere, oraindik badaude hainbat eremu, agian txikiagoak direnak, oraindik ezagutzera eman beharko liratekeenak.

Ekintza honen helburua herritarrak biodibertsitatearen zaintzan eta babespenean parte hartzea da. Arlo honetan udalerriak duen aberastasuna eta balio naturalen hauskortasuna baloratua izan dadin eta gune hauek babestu beharraren garrantziaz konturatzeko beharrezko informazioa emango zaie herritarrei. Ekintza honen ezarpenean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuko da.

Ekintza gauzatzeko, gaur egunera arte egiten diren sentsibilizazio ekintzez gain, beste jarduera batzuk ere planteatzen dira, gutxienez ondorengoak izango direlarik:

* Gizarteari biodibertsitatearen ezagutzan lagunduko dioten eremuak zehaztea (honetarako irizpide desberdinak erabiliko dira, hala nola, irisgarritasuna edo hauskortasuna). Gainera, eremu hauek pairatzen dituzten mehatxuak ere antzemango dira, adibidez espezie inbaditzaileak.

* Behin eremu hauek eta bertan dauden mehatxuak zehaztu eta definitu ondoren, tokiaren arabera medio desberdinen bidez ezagutzera ematea:

-Web orriaren eguneratzea

-Eremuetara bisitak egitea

-Eremuetako argitalpenak argitaratzea

- ...

* 2016ari lotuta, biodibertsitate eta naturarekin erlazionatutako ibilbide desberdinak definitzea eta egokitzea.

* Aiako Harriak parkeko biodibertsitatea ezagutzera emateko ibilbide zirkular bat prestatzeko aukera aztertzea edo helburu hau beteko duen beste moduren bat bilatzea.

* Hirian dauden aisialdirako parkeetako animali eridetxekotuei buruzko informazioa ere zabaltzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Cristina Enea Fundazioa<br>Gipuzkoako Foru Aldundia |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.1.2 | **Udaleko teknikari eta politikariei zuzendutako biodibertsitateari buruzko formazio ekintzak egitea** |
|---|---|
| **Programa** | 7.1. Udalerriko biodibertsitatea ezagutzera ematea eta bere mantentze eta zaintzan sentsibilizatzea |

**Deskribapena:**

Arlo desberdinetan burutuko diren jardueretan kontutan izan beharreko alderdia da biodibertsitatearen kontserbazio eta mantentzea. Ekintza honen bidez, udal teknikari eta politikari bakoitzak beraien lanpostutik garatzen dituzten funtzioetan, biodibertsitatearen hobekuntza baimenduko duten irizpideak barneratzea eta aplikatzea lortu nahi da. Horretarako, Ingurumen Zuzendaritzako teknikari eta politikarien artean udalerriko balio naturalei, biodibertsitateari eta paisaiari buruzko formazio eta sentsibilizazio jardunaldiak egingo dira. Bi urtetik behin gutxienez, horrelako jardunaldiak ere egingo dira udaleko gainontzeko sailentzako. Gainera, egun zehatzei lotutako mezuak bidaliko dira, adibidez, hezeguneen munduko eguna, eta udal egutegian biodibertsitatearekin erlazionatutako mezu eta irudiak barneratzea baloratuko da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.1.3 | **Biodibertsitatea Udal sail, entitate publiko eta tokiko elkarte desberdinekin modu koordinatuan landu** |
|---|---|
| **Programa** | 7.1. Udalerriko biodibertsitatea ezagutzera ematea eta bere mantentze eta zaintzan sentsibilizatzea |

**Deskribapena:**

Arlo desberdinetan burutuko diren jarduertan kontutan izan beharreko alderdia da biodibertsitatearen kontserbazio eta mantentzea. 2013an biodibertsitatearen mantentzean eragin dezaketen proiektuak koordinatu ahal izateko hirigintza-ingurumen sailarteko lantaldea osatu zen, bertan teknikari zein politikariek parte hartzen dutelarik. Hala ere, oraindik mahai hau sendotu beharra dago.

Ekintza honen bidez, sail desberdinek burutzen dituzten jardueren gauzatzean, adibidez, hiriko obrak, ekitaldiak, eta abarretan fauna eta flora babesteko irizpideak indartzea lortu nahi da. Ekintza gauzatzeko, hirigintza eta ingurumen lantaldea sendotu beharko da eta proiektu desberdinak lantzeko bi hiletik behin elkartzea lortu beharko da, lantalde egonkorra sortuz. Koordinazioan landu beharreko eremuak batez ere, hiri garapena eta hiri mantenua izango dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.1.4 | Hiru guneko zein gune ez urbanizagarrietako zuhaiztiei buruzko ordenantza bat egitea, onartzea eta martxan jartzea |
|---|---|
| **Programa** | 7.1. Udalerriko biodibertsitatea ezagutzera ematea eta bere mantentze eta zaintzan sentsibilizatzea |

**Deskribapena:**

Ekintza honen helburua udalerriko zuhaiztiak babestea da. Horretarako, ondorengo jarduerak egingo dira:

* Ordenantza bat idatzi eta onartzea

* Ordenantza honek eragingo dituen pertsonei eta inplikatuta egon daitezkeenei ordenantza ezagutzera ematea, baita gainontzeko herritarrei ere

* Onartu ondorengo lehen urteetan ordenantza aplikatzen dela kontrolatzea eta ikuskatzea

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | 1.500-4.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.2.1 | Tokiko konektibitate ekologikoaren sarea sortzea |
|---|---|
| **Programa** | 7.2 Hiri biodibertsitatearen sustapenean eta kontserbazioan aurrera egitea |

**Deskribapena:**

Donostiak biodibertsitatean aberatsa den ingurua dauka, beraien artean loturarik ez duten guneekin (Igeldo-Mendizorrotz, Ulia, Zubieta…) eta hainbat espezie desberdin dauzkaten hiri parkeekin osatzen dena. Hiri ekosisteman biodibertsitatea mantentzeko beharrezkoa da parke hauen arteko konektibitatea, baita hiritik hurbil dauden eremu naturalagoekiko konektibitatea era. Lotura honetan garrantzitsuak dira zuhaitzak dauzkaten kaleak, izan ere, faunaren mugimenduak baimentzen dituzte korridore lineal moduan funtzionatzen dute, baita hiriko fauna eta flora gune txiki moduan ere.

Ekintza honen bidez, gune guzti hauek lotuko dituen sare bat osatu nahi da. Horretarako, udala lotu beharreko eremuen mapa bat marrazten ari da, eta bertan lotune moduan arituko diren guneak identifikatuko dira. Behin mapa marraztu ondoren, konektatu beharreko guneen azterketa bat egingo da (hiriko orban txikiak eta zuhaitzak dauzkaten kaleak) eta ondorengo urteetan aurrera eramateko jardueren plan bat egingo da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.2.2 | Udal parke eta lorategietako kudeaketan biodibertsitatea kontserbatzera bideratutako irizpideak egokitzea eta barneratzea |
|---|---|
| **Programa** | 7.2 Hiri biodibertsitatearen sustapenean eta kontserbazioan aurrera egitea |

**Deskribapena:**

Hiri ekosistemaren biodibertsitatea kontserbatzeko ezinbesteko elementuak dira udal parke eta lorategiak. Hiri eremu hauen diseinu eta kudeaketan interesgarria da dibertsitate biologikoa bultzatuko duten irizpideak definitu eta aplikatzea. Horretarako, Udalak lehenik eta behin beharrezkoak diren irizpideak definituko ditu, eta ondoren, lanak burutzen dituzten enpresen artean zabalduko ditu. Parke eta lorategiak ere gizarte balioak bultzatzeko eremuak dira, horregatik, behin zehaztutako irizpideak aplikatzen direnean, kartel informatiboen, prentsaren, eta abarren bidez herritarrei zabalduko zaizkie.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | 8.000-20.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Parkeak eta lorategiak | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Lurraldea eta antolamendua | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA |

| 7.2.3 | Eremu berde pribatuetako kudeaketan biodibertsitatea kontserbatzera bideratutako jarraibideak erraztea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.2 Hiri biodibertsitatearen sustapenean eta kontserbazioan aurrera egitea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udal parke eta lorategiak bezala, hiri ekosistemaren biodibertsitatea kontserbatzeko ezinbesteko elementuak dira eremu pribatuak. Horretarako, eta udal parke eta lorategien diseinu eta kudeaketan zehaztutako irizpideak oinarritzat hartuz, Udalak lorategi pribatuen kudeaketa egoki bat zehaztuko duen eta biodibertsitatea bultzatuko duten jardunbide egokiak agertzen diren gida bat egin eta argitaratuko du.<br><br>Gainera, hiri konektibitatean laguntzen duten lorategi pribatuak identifikatu daitezke (7.2.1 ekintza) eta hauen kudeaketaz arduratzen diren pertsonekin eta/edo entitateekin lan egin. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.2.4 | Hiria eta ingurune naturalaren arteko mugetan paisaia kalitatea hobetzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.2 Hiri biodibertsitatearen sustapenean eta kontserbazioan aurrera egitea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Donostiako paisaia ezaguna eta nabarmena da Kontxako badiari eta bere labarrei esker. Hala ere, hirian hainbat guneetan jarduerak burutu beharko lirateke paisaian integratuak izan daitezen. Eremu hauen gehiengoa udalerriaren sarreran kokatzen dira, eta gainera, muga egiten dute hiriko gune naturalenekin, adibidez, Martutene, Añorga… Garrantzitsua da paisaian eragin negatiboak izan dezaketen elementuak paisaian integratzea. Horretarako, lehenik, paisaian eragin negatiboa sortzen duten elementuak dituzten eremuen azterketa bat egingo da. Behin azterketa hau amaituta, egin beharreko jarduerak zehaztuko dira eta hauek aurrera eramateko udalaz gaindiko eragileekin koordinazio bat bilatuko da. | | | |
| **Epea** | Ertaina (2017-2018) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| **7.3.1** | **Baso kudeaketa iraunkorra bultzatzea baso masa autoktonoarekin lehengoratzea eginez** | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Donostiako Udala udalerriko baso autoktonoen berreskuratzearen aldeko apustua egiten ari da. Gutxi antropizatutako udal jabetzako eremuetan, hala nola, Landarbaso eta Oberan, Udalak beste erakunde batzuekin koniferoen landaketak elkarbanatzen ditu, eta Udala erakunde hauekin harremanetan jarri da baso autoktonoa berreskuratu ahal izateko. Horrez gain, Artikuntzan ere jarduera puntualak egin dira espezie autoktonoen landaketen bidez baso autoktonoa berreskuratzeko.<br><br>Ekintzaren helburua, baso autoktonoen berreskuratzearekin jarraitzea da. Plan honen iraunaldian, ahal den neurrian ondorengo eremuak berreskuratuko dira: Landarbaso, Oberan eta Ulia, eta gainera, Añarbe eta Igeldoko basoen berreskuratzearekin hastea aztertuko da. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.2 | Udalerriko erreka eta errekastoen egoera eta konektibitatea hobetzea |
|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea |

**Deskribapena:**

Donostiako Udala udalerriko erreka eta errekastoen egoera ekologikoari eta hauetan dauden elementu artifizialei buruzko azterketa bat egiten ari da. Behin azterketa eta kartografia bukatu ondoren, tokiko mailan eremu hauen babespena egitea aurreikusten da. Azterketan oinarrituz, hurrengo urteetan garatuz joango den ekintza plan bat egingo da. Beraz, gutxienez ondorengo jarduerak egingo dira:

* Kartografia eta erreka eta errekastoen balorazioa amaitzea (Ingurumena)

* HAPO aldatzea, erreka eta errekastoen balorazioa eta kartografia baldintza gainjarrietan modu egokian islatuta egon daitezen (Ingurumena eta Hirigintza- Plan Orokorra)

* Lokalizatutako artifizializazioak ezabatze (kanalizazioak, ibilguen hormigoitzea,…) eta beste batzuk lokalizatzeko lanean jarraitzea (Ingurumena eta URA Agentzia)

* Kontrol eta erradikazio kanpainen bidez erreka eta errekastoen ibilgu eta ertzeetan landare espezie inbaditzaileen eragina txikitzea (Ingurumena eta URA)

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | URA<br>Udala- Hirigintza |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.3 | **Udal jabegokoak diren abeltzaintzarako lurren kudeaketa egokia egitea eta eskudun administrazioaren aurrean lur hauetako biodibertsitatearen babespena bultzatzea** |
|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea |

**Deskribapena:**

Ekintza honen helburua udal jabekoak diren abeltzaintzarako lurrak egoki kudeatzea da, horrela, lur hauekin lotutako biodibertsitatea bultzatu eta tokiko espezieak kontserbatu nahi dira. Horretarako ondorengo jarduerak egingo dira:

* Abeltzaintzarako diren lurren egoera eta beraien ahalmena diagnostikatzea. Behin azterketa hau egin ondoren, eskaeraren araberako lur hauen erabilera iraunkorra bultzatzea. Horretarako, lurraren erabilera eta kudeaketa irizpideak zehaztuko dira.

* Udal jabegoko lursail batean bere erabilera iraunkorra bultzatzeko, Behemendirekin batera kanpaina bat egiteko aukera aztertzea

* Donostiako tokiko espezieen identifikazioa eta egoera aztertzeko azterketa bat egitea eta Udalak hauen kontserbaziorako neurriak hartzea edo dagokion erakundeari eskatzea

* Azterketa egin ondoren, baratza publikoak dauzkaten eta orokorrean herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | 20.000-45.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.4 | **Udalerriko babestutako azalera handitzea eta dagoeneko babestuta dauden eremuetako kudeaketa planak edo ildoak gauzatzea, bai baso erreserbetan baita itsas erreserbatan ere** |
|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea |

**Deskribapena:**

Gaur egun udalerriaren %27,5 HAPOren bidez babestuta dago, eta hauetatik %11k biodibertsitatea kontserbatzeko kudeaketa plan bat dauka (bi eremu; Ulia eta Aiako Harria), honek udalerriaren %4a suposatzen duelarik. Ekintza honen helburua bi eremu hauen kudeaketa planak aurrera eramatea da. Horretarako Aiako Harriak Patronatuan aktiboki hartuko da parte eta Aiako Harriak eta Ulia Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) kudeaketa planak berrikusiko dira. Berrikuspen honetatik abiatuz, eremu hauetan aurrera eraman daitezkeen ekintzen proposamen bat egingo da.

Gainera, udalerriko lurzoruaren %25a biodibertsitatearen kontserbazioan lagunduko duen figura baten bidez babesteko kudeaketa egingo da. Babestu beharreko eremuak hauek dira:

* Igeldo-Mendizorrotz

* Landarbaso

* Uliako azalera bat

Itsas eremuari dagokionez, itsas biodibertsitatea babesteko figura bat beharko da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Media |
| **Kostua** | Kosturik gabe | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| **Gaia** | Lurraldea eta antolamendua | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA |

| 7.3.5 | Tokiko biodibertsitatea hobetzeko lursailen jabeekin hitzarmenak egiteko lur zaintzailetza tresna erabiltzeko aukera baloratzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Ekintzaren helburua lursailen jabeek beraien lurren kudeaketa egokia egitea da. Horretarako, eta konektibitate mapatik abiatuz, biodibertsitaterako interesgarria den eremu bat identifikatu daiteke. Behin hau egin ondoren, lur jabeekin harremanetan jartzea baloratuko da, beraiei lur zaintzailetzaren bidez egindako hitzarmenek zer diren azaltzeko bilera bat egitea proposatuz. Jabeen prestutasunaren arabera lursailen kudeaketa egokia egiteko hitzarmenak egingo dira. | | | |
| **Epea** | Luzea (2019-2022) | **Lehentasuna** | Ertaina |
| **Kostua** | 4.500-8.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.6 | Udalerrian hezegune berriak sortuz biodibertsitatea bultzatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Orain arte hainbat putzu sortu dira anfibio eta intsektu desberdinen babespenerako, adibidez hegoaldeko zuhaitz-igela. Gainera putzu hauen jarraipena egiten da, eta berri batzuen sortzea aurreikusten da, batez ere, Ulian, non habitat mota hauek eskasak diren. Ekintzaren helburua, putzu hauen jarraipenarekin segitzea da eta gainera, epe laburrean beste 6 sortzea. Behin putzu hauek sortu ondoren, beste berri batzuen sortzea balioztatuko da, lehenik beharra eta kokapena aztertuz. | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 45.000-80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.7 | Ingurumen ikuskaritza eta kontrola egingo dituen udaltzaingo atalaren existentzia bultzatzea | | |
|---|---|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea | | |
| **Deskribapena:** | | | |
| Udaltzaingoari formazio saioak ematen jarraitu ingurumen ikuskaritza eta kontrol lanetan aurrera egiteko | | | |
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | 500-1.500 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

| 7.3.8 | Espezie inbaditzaileen kontrolean eta jarraipenean lan egitea |
|---|---|
| **Programa** | 7.3 Udalerriko ekosistema natural eta seminaturalak kontserbatzea eta mantentzea |

**Deskribapena:**

2009.urtetik Donostiako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta inguruko herriekin elkarlanean landare espezie inbaditzaileen erradikazio eta kontrol lanetan dabil. Lehen pausua Cortaderia selloana espezieak udalerrian duen presentziaren kartografia bat egitea izan zen, eta ondoren beste espezie batzuen presentziarekin osatu zen (Fallopia japonica eta Buddleja davidii). Urte hauetan zehar, espezie hauen erradikazio eta kontrol kanpainak eraman dira aurrera eta lan hauen jarraipena egin da.

Ekintzaren helburua erakunde desberdinekin elkarlanean (inguruko herriak, Gipuzkoako Foru Aldundia, udaleko departamentu desberdinak…) espezie inbaditzaileen kontrolarekin jarraitzea da. Udal jabegokoak diren eremuetan lan egiteaz gain, orube pribatuetan lan egin nahi da.

Aurrera eraman behar diren jarduerak ondorengoak dira:

* Flora inbaditzailearen erradikazio eta jarraipena egitea. Espezieak ezabatu ondoren gutxieneko lehengoratzea egitea.

* Herritarren sentsibilizazioa: erradikazio lanak egiten diren eremuetan azalpen kartelak jartzea.

* Landare mota hauek aurkitzen diren orubeen identifikazioa eta klasifikazioa egitea. Arazoaren berri ematea lur hauen jabeei eta beraiekin espezie hauen erradikazioa eta orubeen lehengoratzean lan egitea.

* Auzo mailan lan egitea erradikazio lanak auzolanean egiteko

* Obrak egiteko momentuan hazien sakabanaketa ekiditeko protokolo bat zehaztea

* Fauna espezie inbaditzaileen jarraipen bat egitea eta beste erakundeen obra publikoetan hauen erradikazio neurriak eskatzea

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Epea** | Laburra (2015-2016) | **Lehentasuna** | Altua |
| **Kostua** | > 80.000 € | | |
| **Arduradun nagusia** | Udala- Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna | **Beste Arduradunak** | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| **Gaia** | Biodibertsitatea eta Ingurumen naturala | **Aalborg-eko Konpromisoak** | 3. NATUR ONDASUN KOMUNAK |

Enea
CONSULTORÍA DE AUTOR EN SOSTENIBILIDAD
IRAUNKORTASUNERAKO AUTORE-AHOLKULARITZA
**www.eneaconsultoria.com**